

GAUEKO ABENTURA

X. GALARRETA



© Marjinalia Bilduma

© Xabier Galarreta

1999. urtea

Lege-Gordailua: SS-1320/99

1. **atala.** Zerbaiti ekitea jakin gabe nolako amaiera izango duen. Halakoxea izan daiteke abentura hitzaren definizioa. Mentura ere esaten zaio; eta “menturaz” famatuxea ere hortxe dabil, askoren ahotan (“agian” esan nahian). Betiko jakituria nazkantea. Bat hizkuntzarako biziko balitz bezala; alderantziz izan beharrean. Bai, alderantziz bizi gara gu. Erraiak igo zaizkigu burura, ta orain ez dugu asmatzen kapeluaren neurriarekin. Txiste merkeak. Zerbait esan nahi eta ezin. Humorea falta zaigula ere esango du norbaitek. Ta berak bakarrik egingo du barre. Gorroto diet hiztegiei. Zenbat ta hitz gehiago bildu, orduan eta hutsalagoak. “Baten barruan ez dagoen altxorra alferrik da hiztegietan edota besteen liburuetan bilatzea” (Kung-Fú). Ipuina; eleberria; bost lerroko kontakizuna; txistea;... Bakanal batean ardorik edan ezin duzunean, hori ez da bakanala. Zerbait falta zaidala konturatzen naiz. Botila. Botila on bat, buruaren aurka apurtzeko. Ta puskak segituan bota itsasora, mezu batekin, ea tontolapikoren batek jasotzen duen laurogeita bi urte barru: ezagutu ez zintuen anaia; inoiz ezagutu ez zenuen aita; kale gorrian lagatu zenuen txakurra. Umore piska bat, behintzat, hondoa guztiz jo ez dugula egiaztatzeko. Nik, begira, sekula ez dut saririk irabazi; eta daukadan inpresioa hauxe da: inorekin zorretan ez egotearena. Nire irudimena kaxoi batean dago.

Hortik atera nezakeen, bai, baina jan egin behar, motel! Zinikoa izaten ere saiatu nintzen behin, baina patetikoa izaten amaitu nuen. Beraz, ahaleginak egin nituen zintzoa izateko; horretan ere porrota baina. Zer dago gutaz kanpo? Zein izan daiteke eleberri on baten hasiera? eta jarraipena? Botila on bat, dudarik ez. Hori da elementurik onena hasi gabeko gauzak amaitu eta amaigabeko gauzak abian jartzeko. Umorea, merluzo (“legatzo”), umorea. Edo tumorea. Azken batean, hil egin behar dugu ta. Niri halako umore-hondar bat baino ez zait geratu, nire ama hiltzen ikusi eta gero. Uste nuen hori besteei bakarrik gertatzen zitzaiela. Auzoko bat hil dela? Tira, ez zen hilko ba! Zer uste zuen, gero? Hilezina zela? Baina, joder, “bati” gertatzen zaionean... Hiltzea bizio bat da, hankasartze bat. Zerbait ahaztu zitzaion gure sortzaileari, eta barkatu. Ez da ausartkeria, beldurra baino. Gure hil-orduari aurrez-aurre begiratzeko beldurra. Jakingo bazenute, zeinen hutsala den! zeinen ikaragarria! Umorea, hala ere. Umorea, gure planetari bultza eta bultza eginez jarraitzeko. Eta falta zaigun botila, esan nahi dugun guztia hasieratik amaieraraino esateko. Koldarkeriarik gabe. Bularrean jartzen zaidan pisua hola bota behar dut, gainean (ta barruan) lehertu ez dakidan. Liburu bat orri guztiak zati-zati eginda emango nuke argitara, Koldo Mitxelenakoen onespena ez irabazi arren (funtzionari horiek beldurragarriak dira! Lezioak ematen azkarrak gero! irabazten duten soldata ederrak jakintsu egiten ditu-eta). Hitz gorri bat botatzera nindoan baina ez; ez dut nahi.

Nire ama hilak ontzat emango ez lukeen ezer ez dut idatziko; hor hasten da errespetua... Edo koldarkeria. Auskalo. Edonola ere, ez dut errazkerietan erori nahi —errazegia izango zelako—. Ikus dezagun gaur gauean zenbat hitz idazteko gai naizen. Badakizue: “Erremintak” – “Zenbatu hitzak”. A, eta baita “karaktereak espazioekin” ere. Jaun-andreok: erabaki dut gauari onura ateratzea. Beraz, kafea eta kopa eta txekorra ez bada, bai behintzat txahaltxo bat (zigarro errubioa). Goi-mailako literatura ez dela? Beno, eta nori axola? Zu akaso al zara goi-mailako irakurlea? Ez da nire asmoa inor iraintzea. Baina euskaraz hamar hitz zuzen idazten ez dakitenez kopetaraino nago, batez ere lezioak ematen saiatzen direnean. Astoa jakintsua zen eta ni enteratu gabe! Batzuek idealtzat daukaten gizartea saldu nahian beti, denok tunel estu eta eskas horretatik sartzea ezinbesteko baldintza izango balitz bezala, zerbait lortzeko. Ez. Ezin duzu idazteko ordutegi bat izan; hori ez da serioa. Eta txarrena hori da, ia denek idazteko ordutegi bat daukatela. Bestela, zuk esango didazu nola egin hiru kiloko kotxea erosteko. “Hauskorra”. Hala da artistaren patua. 35 pezetako seilu batek erabaki dezakeen patua. Patoa (kuak-kuak). Barka, ez nuen horretan jauzi nahi. Baina, batzuetan, hitzak-eta endredatu egiten zaizkit, nire buru hutsitzel honetan. Gur-gur (zer da hori?). Egon isilik, mesedez. Zu ez zara inor galdera ergelez ni aspertzeko. Bati barru-barruan geratzen zaiona, bada horixe bera da literatura. Hondar bat. Gustatuko zaizu ala ez zaizu gustatuko. Beti horixe

bera, hondar bat. Eta sabela zeharo izorratuko dizun kafe on bat hartzeko kristoren gogo. Esan eta egin. Eta joan zen kafea hartzea. Txupito bat patxaranarekin. Gaua zen gaztea, oso. Eta gauzak ekinean lortzen direnez, tabernarako bidea hartu zuen. Gure protagonistak, esaterako, “X” jauna izango du izena (gizon misteriotsua izateagatik ez, baina pornografiazalea izateagatik). Gaur egun, ia mundu guztia da pornografiazalea. Gazteak eta zaharrak. Ezin erotismorik gabe bizi. Erotismoa galdu baduzu, atzean geratu zara. Edo langabezian zaude. Gizarteak txu egingo dizu aurpegira. **2. atala.** Gorputz-atalak. Zenbat? Hogeita lau bai, erraz. Kontaketak beti dituk oso inportanteak. Dirua kontatzen diagu, esaterako. Bizitza osoa igarotzen zaiguk horrela, dauzkagun lau xoxak zenbatzen. Gu bai mixerabliak. Gure handinahiaren esklabuak beti. Eta zu lehena (ni bigarrena, inporta ez badizu). **3. atala.** Beste istorio bat. Izena ere jar diezaiokegu. Inazio. Behin kristo hankasartzea izen batekin. Exitentzia hankasartzez beterik dagoela kontuan hartuta, garrantzi handiegirik ez izan arren —tamalez, horrek sinesgarritasuna kendu zidan bizitza osorako—. Gainera, jendea tontolapiko samarra da. Eta maltzurra. Zu izorratzeko bidea aurkituz gero, egon ziur bide hori erabiliko duela. Elkartasunean sinesten dut, bai, baina gosez hiltzen direnekin bakarrik. Zeren gosez hiltzeari utzi orduko, hortxe oldartzen zaizkio denak batera gixajoari. Nik holakoxe kontzeptua daukat jendeaz: ona baino, txarra. Barrutik ildo horretakoa izango naizelako, ziurraski. **4. atala.** Marrazoak dira

munduko animaliarik gozoenak. Botereak, ordea, ziri ederra sartu digu. Benetan. Sar zaitez beldurrik gabe marrazoz jositako leku batean; zure geografian halako lekurik ez baduzu, erosi dozena bat marrazo eta sar itzazu zure etxeko bainontzian eta segituan sar zaitez arraintxo sentibera horiekin, eta ikusiko duzu zeinen gozoak diren, zeinen maitagarriak. Benetan. Botereak, politikariek, ziri ederra sartu digute; engainatu egin gaituzte. Nik beti uste izan nuen beste gauzaren bat, baina hori gezurra baino ez zen. Begira, beste modu batez ere planteatu dezakegu desastre hau: zu nire psikiatra zinen eta nik zirriak egiten nizkizun, ez, barka, esan nahi nuen ni zure pazientea nintzela (“pazientea” osea pazientzia handia daukana, hortik hitza...). **5. atala.** Hauxe da idazteko nik maite dudana. Modurik eza alegia. Esatea hamaika gauza eta ez esatea ezer. Abildade handia eskatzen duena. Begira, egunean irakurtzen ez dakit zenbat ordu igaroko banitu, itzultzen aritu beharrean, baliteke esateko gauza interesgarri asko izatea. Baina, zoritxarrez, hori ez da nire kasua. Horregatik, arima minduta daukat. Eta nire parte nobleetan, halako pisu adieraezin bat... Babalorak gauzez nire herriko kaleetan, hildako herritarren arima bilakatuak, komunikazio-eske, oihuka: “gu garela, joño!” Gorra gara, ordea. Hainbeste gauza esaten dizkiguten egintzen aurrean, baietz ONCEkoek gu baino gehiago ikusi! Bai, txirrindulari hori, hala da bizitza honetan: helmuga pasatu zirenak hilda zeuden eta gu txaloka. Dena den, patxarana suabeegia da. Beste zerbaitekin, fuertegoa, behar da

gauari errepasso on bat emateko. Garai batean, gazteagoa nintzenean, banekien gauak nola antolatu. Egun batean, beldurtu eta zentzatu nintzen, hau da, ez apaizik ez epailerik gabe ezkondu egin nintzen. Baina besteak baino ausartagoa izaten jarraitzen nuela nire buruari sinestarazteko, ezkondegabekoen erroldan eman nuen izena. Orain, zorionsua naiz. Diferentea. Besteak ez-be-za-la-ko-a. Barka, ama. Ez zintudan iraindu nahi. Arrazoï duzu. Ez dut besteentzat iraingarria izan daitekeen ezer idatzi behar. **6. atala.** A, zelako parranda! Horixe da idazlea, parrandazale amorratua, gautxori galdua! Idazten pasatako gaua; eta edaten... Imajinatzen, norekin izan zaren, nolako izter samurrak zituen... Sexua ondo dago, benetakoa ez denean. Edo oso “gose” zarenean. Edo oso gaztea zarenean. Edo liburuak irakurtzeko (literatura, batez ere) denbora piloa duzunean. Hau da, bizitzea merezi duenean. Uste dut, gaurko gaua oso-oso luzea izatera doala. Hemen, mamuz jositako gaztelu honetan, non aspalditik bizi naizen nire amets ustelei kateatuta (mamuak ditut ikaratuta!). Eskozia ere ondo dago bizitzeko —whisky aparta, lankide maitea!—. Hori behar dugu, hori. Bizitzeko erregai piska bat. Whiskya edo gogoa. Gure bizitzekin bat egin dezakeen edozer. Bai, badakit aspergarria naizela. Dena den, orain arte nik ere ez dut dibertituko nauen ia inor aurkitu. Baliteke gure herria halakoa izatea, jende aspergarriz jositako herria, existentzia panfleto baten ikuspegitik interpretatzen ohituta. Bai, heldu idazu lepotik, ni ez bainaiz militante

aspergarri horietako bat! Multzoan ezkututzen diren horietako bat, beren beldurrak nolazbait ezkutatzeko! Neure barrabilei ere ez diet nik hika hitz egiten; eta ez pentsa begirune-kontua denik; ez da hori. Benetan. Ohitura-kontua baino ez da. Mundura ekarri ninduen zikoinari hika hitz egin nion, eta jo zidan mokokadak oraindik min ematen dit. Ez, nik zerikusi gutxi daukat lurtarrokin. Ez dakit benetako maitasuna izan ordez, patologikoa ez ote den. Hizkuntzarekiko dudan lotura, esan nahi dut. Eta ez hartu gaizki; izan ere, zuek lurtarrok, zeinen minberak zareten! umorea, zelan galdu duten euskal kumeek! Humore-galtze hori euskalduntasuna galtzearekin lotzea ez litzateke zaila izango... Noski, ni ere multzo horren barruan nago. Jeronimo naizelako. Eta zuk baino eskubide gehiago ditudalako... marmar egiteko; euskaldunak direla eta ez direla. Botila. Botilaren falta nabaritzen dut. Behin, deitu zidan gizon ospetsu batek, esanez, gauzak lasai hartzeko. Egun hartaz geroztik, valium 14 hartzen dut gosarirako. Ez galdetu, mesedez. Ez galdetu. Ikusi izan ditut begirada hilda zeukaten gizonak. Horrek ez du ezer esan nahi. Hau ez da ipuina. Ipuina balitz, kontaketa antzeko zerbait legoke. Eta marrak (elkarrizketei hasiera ematen dietenak —zeinen politak diren!—). Hala ere, nik botilaren falta somatzen dut. Horrek esan nahi du gibelarekin arazoak izango ditudala. Baina... Heriok ez du inor barkatzen. Eta nik, aitortu behar dut, ezen,... Tira, ezer ez. **7. atala**. Hau da idazteko daukadan modu bakarra. Inoiz ez lan luzeegiak. Gauza motzak —

zentzu guztietan, mihiluze—. Jende motzarentzat —gorrota nazazu egia/gezurra esateagatik—. Horrela jarraitzen badut, inoiz ez didate Planeta saria emango. Hau desgrazía, se nos ha muerto una tía. Gaua luzea da, eta ni konformatu egingo nintzateke hamar orriko “kontakatilukada” honetatik zerbait aterako balitz. Narrazio bat, esaterako. Aberrazioa ere dei dezakeguna. Begira, nire helburua zein den esango dizut: apur bat gehixeago gorrota diezadazun. Gorrotoa ona da, ipurdiko txinportak —kasu— arintzeko. Talko hautsak ere onak dira, baina garestiegiak. Aberatsa banintz, erabiliko nituzke (hautsak). Baina, kasu horretan, zuek esango didazue zertarako idatzi beharko nukeen. Zeren pobrea bazara, normala baita idaztea; baina aberatsa bazara, gutxienez hiruzpalau petrolio-iturri lehertarazten nahikoa lan izango zenuke, mundua zerri-zerri eginda uztea aberatsaren autografoa bezalakoa delako. Zenbat eta kutsadura handiagoa eragiten duzun, orduan eta aberatsagoa (boteretsuagoa) zara. Hori bai, heriotza zure bila datorkizunean, konturatuko zara zeinen amarrugabea izan zinen/nintzen/zineten. Genukeleudekebanulirateke. Koujouns! **8. atala.** Bai, gaua oso luzea da. Sorpresaz josita dago. Kalekantoï bakoitzean, ustekabeko bat: zangalatraba, lapurreta, kontrola, desesperatu baten bisitaxartela... Sorpresak jaso ditzakegu, baina baita eman ere. Baserritarraren filosofia ezin dut kasu honetan aplikatu. Ez, ez naiz horren ikasle aplikatua... Txinportengatik, badakizue. Txinportak oso garrantzitsuak dira bizitza honetan arrakasta

izateko. Eta arrakasta, oso garrantzitsua da bizitza honetatik penaz alde egiteko. Bizitzan zorte-piska bat izateak laguntzen digu bizitzari atxikitzen; esaterako, gibelesko, urdaileko, burmuinetako eta larru-azaleko minbizia baduzu, ziurraski ez dizu pena handirik emango bizitza honetatik alde egiteak. Izadia oso jakintsua da-eta. Niri, benetan, Indian jaio izatea gustatuko litzaidakeen. Behiak gurtzeko. Jainko baten “boñigoak” nolakoak diren neure begiez ikusteko. Barka, ez dut inor mindu nahi. Sentikortasun guztiak errespetatu nahi ditut. Mutil zintzoa izan nahi dut. Denen txaloak nireganatzeko. Planeta saria noizbait irabazteko. Edo Nobela. Ez dakit, ba. Ni gutxirekin konformatzen naiz-eta. Loto on batekin ere konformatuko nintzateke. “Loto lorea”. Oso poetikoa. Etxeko balkoian loto asko landatuta dauzkat. Eta hosto bakoitzean marrazkiak eginak dauzkat, eta miniaturazko olerkiak ere bai. “Gero, gaua iristen denean, nigan dagoen basapiztia iratzartzen da eta orduan nire emaztea jipoitzen dut konortea galtzen duen arte...”. Poetaren beste aurpegia. Zenbat eta piztiagoa, orduan eta sentiberagoa... poeta bezala. Ez. Hori gustu txarreko “inspirazioa” izan da. Planeta urrun batetik jauzi egin zuen suizidak oraindik ere erortzen jarraitzen du; hainbeste denbora darama horrela, ezen, bere burua hiltzeko gogoia ere galdu baitu. Zoritxarrez, ezin du bere patua saihestu. Noizbait, lurraren aurka jotzen duenean, zati-zati eginda geratuko da. Baina bien bitartean, jauzi izanaren erabakiaren ondorioak jasan beharko ditu

azken momentura arte. Denok egin dugu antzeko zerbait: jauzi egin dugu, eta geroxeago abiapuntura itzultzen saiatu gara, baina ordurako ezinezkoa zen. Okerrena da ezin zaituztedala kontsolatu; azken batean, nor naiz ni, itzulpen teknikoak egiten dituen bat baizik? **9. atala.** Atal honetan biltzen da liburu osoaren mamia: zer egin nire benetako ahotsa aurkitzeko. Edo hobeto esateko, zer egin nire ahots jator eta atsegina aurkitzeko. Ez orain arte erabili dudan ahots harro eta zaratatsua (vociñglero), baina ahots samur, delikatua. Benetan, ez dut inor zauritu nahi, ezta neure burua ere. Uste dut kalte handixea ekarri diodala nire buruari, nire barneko ahotsak zein izan behar zuen lehenago ez pentsatzeagatik. Nahi dudan ahotsa aurkitu izan ezik, hobe litzateke gauzak bertan behera uztea. Munduari ez baitzaio inporta idazle bat gehiago edo gutxiago... Eta hori, jakina, ona da munduarentzat, denontzat. Hasi berri den gau honetan iruditzen zait gauza asko aurkitzera noala. Agian, nire barruan zain egon den nortasun bat. Agian, larru-azal zaharraren orde, berri bat (lehengo animalia bera barruan ote?). Itxaron. Hau ezin da bidea izan. Nire ahotsak ez du mistikoa izan behar. Nik bide horretatik ez dut ibili nahi. Nola gustatuko zitzaidan, gauza umoretsuak kontatzeko gauza izatea... Txiste bat sikiera. “Bazegoen behin Jaimito ikastolan eta galdetu zion maistrak: Jaimito, esango al didazu Euskal Herriak zenbat eskualde dituen? Noski, andereño: hiru hemendik, beste hiru hortik eta beste bat handik”. Beno, ez da hasiera txarra (nire garaietako Jaimito lizunagoa bazen ere). **10. atala.** Eleberri beltza.

Hilketak. Odola. Bortxa. Egia esan, zinemak askoz hobeto egiten du hori, guk baino. Beraz, eleberri beltzak idazteko nekea zertarako hartu? “Estilo Berria” liburuari dagokion ateraldia. Bide horretatik ez dago inora iristerik. **11. atala.** “Benito Cereno” itzultzen saiatu naiz, baina berehala ohartu naiz lan itzela izango zela. Eta atzera egin dut. Ez dizut esango liburu hori itzultzeko gai ez naizenik; baina denbora asko beharko nukeela, bai, hori bai. Eta nik ez daukat denbora asko. Soldata, ditxosozko soldata irabazi beharra daukat. Horrengatik ez balitz, hamaika liburu idatzi eta itzuliko nuke. Hau ere “Estilo Berria” liburuari dagokio. Basamortuan zehar pista baten bila ibiltzea bezala, hi! Hari-matazak trinko jarraitzen du. Hala ere, gau honek, gau samur honek... belarrira oraindik ere gauza asko kontatuko dizkidala uste dut. Gau honetan, lehentxeago, hil zen. Azken hatsa nola ematen zuen ikusi nuen. Gorantz begiratu nuen, sabai alderantz. Bazpare, han goian zegoen. Eta segituan leiho alderantz, irekita zegoen ziurtatzeko. Zeren Ospitaletik atera zedin nahi nuen. Berriz ere aske izan zedin. Heriotza gau honetan sumatzen dudan samurtasuna da. Edaten isilarazi nahi dudan bakardade-sentsazioa. Baina guk jarraitzen dugu gure betiko egoismoarekin! Uste dugu helmuga bat izatea nahiko arrazoia dela “estrategia” bat antolatzeko. Ai, ikusi izan bazenute nola iraungi zen! Erizainek gorpua piska bat txukundu zutenean, aurpegian aspalditik ikusten ez nion irribarrea ikusi nion. Damu zait, denbora gehiago berarekin geratu ez

izana, han, gau-beilan, ikusten aspalditik ikusi gabeko aurpegi maitagarri hura, jada minetik libre, jada minbizitik aske. Itxoin. Itxoin. Nire ahots jator eta maitagarriak... negar eragingo dizue... Eta nik ez dut hori nahi... 12. atala. Zaldizkoak lauoinka gauaren erdian. Euren mezua bi hitzetan laburbil daiteke: zatoz gurekin! Poesia kanonizatu hau. Erromako jauregietan gaizki erabilia. Nire bidea, aspalditik bilatzen nuen ahotsa, hor zegoelako: Italia absurdu batean, bide arrotz bateko sastrakan ezkutatua, ni bertotik noiz pasako zain. Beno bada, pasatu naiz hortik. Hitzak jasotzen ditut ezpainenatik ezpainenara, ta bakarrik beldur naiz nire sabela hainbeste emozio jasateko gai izango ote den. Hitz taiugabeetan bainu hartzea, bideko hautsa kentzeko. Hain luzaro ibili naiz nire gaitza sendatuko zuen belarraren bila! Eta nire etxeko lorategian xortaka zegoen! Hamabigarren atal loratu honetan aurkitu dut aurkikuntzaren abantaila, eta hatz dardartsuen artetik ezereza eskapatzen bazait ere, egingo dut hamabost urterekin egiten nuena soto batean: koloreak txorakeriaz nahastu, denak kartoi baten gainean. Miretsita geratuko naiz...: zeinen erraza zen!... nola ez nintzen lehenago konturatu... Hau da idatzi behar nuen guztia. Lerro txiro hauetan laburbilduta dago nire ez-jakituria. Ez dut inor arbuiatu nahi, baina... ea ulertzen didazuen: ezin dut emoziorik sentitu planfleto baten aurrean. Bestalde, ematen dudana dirua ez bada ere, bere balioa duelakoan nago. Batzuetan, kontrolpean izaterik ez dudana basakeria nitaz jaun eta jabe egiten denean... Espejismoa da,

ni ez bainaiz inoiz itsas lapurra izan. Urak zeharkatzen dituztenek bide maltzur horretatik ikusten naute barrez, eta koadro honetako pertsonajeak batetik bestera dabilta, oihuka, oihaletik inoiz ateratzen ez diren oihuak, gau eder eta geldo honetan, non ematen duen gauzak benetan gertatzen ez direla, eta zeruko soinuak inguratzen zaizkigula. Ez, hitz batez laburbiltzen diren sentimenduetan atxilotuta egotea ez da erabaki oker baten ondorioa izan, halabeharrek gizateriari jarritako baldintza baizik. Zeinen atsegina den txutxu-mutxuka eta berriketan nekatu gabe aritzea! Iraganeko gauzak —oroitzapenak— koltxoi baten bilgukien artean geratu dira harrapatuta, trabatuta. Hau da nire ohea! Koltxoi zahar hau! Izara hauen artean dago nire zoriona! Deiadar egin nahi diot gaez aurpegia mozten didan haizeari eta argi eta garbi esan entzun nahi duenari lokarriak askatzea lehenago edo beranduago eman-beharreko urratsa dela! Bular hau, hain odolez beteta! Malko hauek, hain kristalezkoak! Sentipen hauek, hain ezinezkoak! Lur-zati txiki bat nahi dut, bakarka negar egiteko, gau eztsuaren kantak nire bularrean emozioz lehertzen diren bitartean! Dantza, dantza egin, itzalok! Intsektu txikia bilakatu zaren hori, ez egon triste! Nik sinesten dut zugar, mundua hegaldatzen duzun unean, nire pentsamenduak likuatzeko erabiltzen duzun tresna boteretsu eta misteriotsu honetan! Ez egon triste, zu gu zara, eta gu zure hurrengo patuaren nahia gara, urmahel horretan nostalgiaz eta beldurrez amiltzen zarenean,

heriotzaren urmahelean, sua... Edateko gehiago ez daukat. Erregaia bukatu zait. Mozkortu baten hitzak entzun nahi ez badituzu, itzali telebista! Mundua bakar-bakarrik erreala da nire ordenagailuaren pantailan ikusten dudanean. Burua makurtzen dut; nire bizitza itota dago. Koartel batean agindu batek esnatzen ditu soldaduak. Intsektuak hegaldatzeari ekiten dio berriz. Eta sentsualtasuna nigan hilda sentitzen dut —bazen garaia!—; bizitza oroitzapena bezalakoa da, kandelaren argitan. Hemen egotea, inon ez egotea da. Muinari aurre egin behar zaio, belarrak jango ez bazaitu... Bai, honelako ahotsa nahi dut niretzat, nirekin etsaituko ez zaituena, gizona edo emakumea izan, berdin... Ahots bat, demokratikoa... zentzu klasikoan —zer dakidan nik mundu klasikoaz!—. Gauak bere umeak abortatzen jarraitzen du. Odolezko itsaso batean nire txalupa ikusten dut. Nire (denon) heriotzaren sentsazioa dastatzen dut. Nire hatzak, mugimenduz beteak, nire aginduei jarraitzeko gauza oraindik ere. Gaurko bideari hemen eman nahi diot azkena. Bolumen honetatik agur esango dizuet. Espazioak elkartzen gaitu. Zu, kritikaria bazara, ez kritikatu horrenbeste. Kontuan izan gillotina zain dugula, gure liburuak bezala. Parranda honek bukatu behar du. Ikusiko dugu, hurrengoak, noraino eramango gaituen. **13. atala.** Superstiziosoak ez zara izango, ezta? Bi aldiz pentsatu behar dira gauzak, bota baino lehen; bestela, berrogei urte pasata ere jendeak kargu hartuko dizu... Batez ere, tontoenak, hau da, bizitzak gehien saritu dituenek. Behazuna...? Ez

dakit, ba. Begira, hona jaisten naizen bakoitzean (nire infernu txiki eta maitagarri honetara), beti esaten diot nire buruari: “Tira, gaur gaupasa egingo diat ordenagailuaren aurrean”. Gezur galanta, hi. Goizeko ordubietan betazaletan marmolezko pentsamenduak kokatzen zaizkit eta Perurenak berak ere ez luke horiek altxatzea lortuko. Aitor dezagun, hala ere, egun honen zain bizi naizela, ordenagailuaren aurrean jarriko naizen egunaren zain. Ez beza irakurleak pentsa, ordea, gainerako egunetan ordenagailuak itzalirik dirauenik, ez bailitzateke gezur handia baizik izango (puaaaj!). Egunean, zortzi bat ordu piztuta dago-eta. Baina, kontua da zertarako dagoen piztuta. Literatur lan noble eta liluragarriek ekiteko, akaso? Tse-tse-tse. Ez ditzagun gauzak nahas. Besteei ez dakit, baina niri dirua ematen didan gauza bakarra “itzulpen-tekniko-komertziala” baino ez da. Eta lan-kontuak zelan doazen ikusita, laster ezta horrek ere, ziurraski. Argitaratzaile batek zera esaten zidan: “Ez pentsa hire liburuak bakarrik gaizki saltzen dizkiagunik; beste egileen liburuekin berdin gertatzen zaiguk-eta”. Baliteke, bai, hala izatea. Eta kasu horretan, euskararen maldan behera esan nahi luke horrek; oker banengo, nire egoeraren maldan behera baino ez. “Gaitzerdi” diok hik, ezta? Tira, ba. Eta zergatik ez? Ez diat presarik. Nik bazekiat zelan hiltzen den jendea. Neronen begiez ikusi diat. Hizkuntzak, zibilizazioak, herriak ere berdin... Goroldioa duk hiltzen ez den gauza bakarra. Nik ere goroldioa izan nahi nitek —olatu bati atxikitako goroldioa, esaterako—. Egia esan,

planeta hau malkoz beterik dago barrutik. Lehen, denboren hasieran, golf-pilota bezain txikia zen; gero, lehendabiziko gizakiak agertu zirenean, handitzen joan zen, dinosaurioentzako txiki geratu zen arte. Hori da nik maite dudana estiloa, absurduarena alegia. Nire bizitzan besterik ez dut izan eta. Baina, nork izan du estiloa? Zer estilomota, gainera? Ba... bizitzeko eta hiltzeko estiloa, esaterako. Pilotak aipatu ditut lehen. Golf-pilotak. Orain, berriz, tenis-pilotak goraiatu nahi ditut. Tenis-pilotak gu geu gara. Tik-tok, tik-tok. Out! Ta holaxe, norbaitek huts egiten duen arte. Noski, hutsaren errua ez da inoiz pilotarena. Ai-ai-ai! Berrito hasi nahi nuke! Berrito lehen aldiz mozkortu, lehen aldiz nire gurasoak gorrotatu, lehen aldiz etxetik eskapatu, lehen aldiz Batxilergoa aprobatu, lehen aldiz nire gurasoengatik negar egin! Baina, zoritxarrez edo zorionez, norabide bakarreko autobide batetik gabiltza. Motxila aurreko “autoservis-ean” ahaztu zaizula? Izorrai, motel. Ez zegok atzera egiterik eta. Behin, hori bera gertatu zitzaidan, benetako autobide batean baina. Agian, egunen batean kontatuko dizuet nola gertatu zen. Ni, nekaturik nindoan. Eta ez dago zertaz harritu, Donostiatik Parisera bainindoan... Vespaz! Jakin nahi duzue...? Barka, baina hau ez da horretarako momenturik egokiena. Uholde ikaragarriak harrapatu ninduen bidearen erdian; gaua itxita zeuden gasolindegietan igaro nuen, norbaitek motorra konpontzen lagundu zidan (bujia bustitu bat-edo)... Heldu nintzen azkenik. Eta laguna, haserre. Arrazoi osoz gainera,

hogeita hamalau orduko berandupena. Hori da dena. Nire gaztaroko pasadizo bat. Ea errepikatuko al nuen? Eta zergatik ez, gero? Euskaldun askorentzat bizitza apostua da... Gau osoa daukagu, goizeko ordubiak-edo arte. Ilargi beteko gaua; sorginak dantzan, gure sentimenduekin (baldin-eta sentimendurik badugu). Nik, gaur, berriz ikusi dut nire aita negarrez. Aspaldi honetan, hainbeste aldiz ikusi dut egoera horretan, ezen, ia-ia barregura urrikalgarria eman didan. Milioi asko ditu bere oinordekoen artean banatzeko, eta bizitza bakarra mundu honetan uzteko. Aukeran, nahiago nuke mundu hau beste era batera antolatuta balego. Bai, “bi zaharrak” maite nituen, nire nerabezaro eternalak hori ikustea galarazten bazidan ere. Lan-aste osoan, astelehenetik ostiralera bitartean, alkohol-tantarik dastatu gabe egon naiz, egun honetarako erreserbatzen nintzen-eta. “Erreserbako idazleak”, “ondutako idazleak”, “jatorri-izeneko idazleak”, “urteko idazleak”. Tentazioak izaten ditut. Nork ez, ordea? Zuk, hain zorrotz epaitzen ninduzun horrek, jakingo bazenu ni bezain barregarria zarela... Hilobi batean, den-dena dakien emakume bat dago. Ai, ene ama maitea! Zeinen hotzak diren Corrella-ko kanposantuko lurrak! Orain ulertzen dut heriotzak ere mezu bat, esangura bat daukala. Garrantzitsuena akaso; edo zirtzilena... Edozein modutan, bai misteriotsuena ta, baita hunkigarriena ere. Euskal Herriak, salba gaitzazu mixerian erortzeaz; izan mixerikordiosua, gu gure buruekin ez garen bezala; akorda zaitetz zure alde alperrikatu dugun denboraz; eta ez gaitzazu utz

tentazioan erortzen. Men. Egin. Ala ez. It's the quid. Of this lovely ipuin. Maite nauen nire semeari (dituen hiru urte bete berriak nire salbazioa izan bitez). Hainbeste lan egin, eta zertarako? Ai-ai-ai, jakintsuek zelan erabiltzen nauten! Gaua, ilargi beteko gaurko gaua, herri honetako sorginen barrea mendian; behin printzea izandako igela —gu guztiok baino zoriontsuagoa—, lakuan, kro-kro (ko-ko-ri-ko: goizeko seiak, etxe ondoko oilarra! Oilar-zopa! Gizakion patua! Jan-ta-jan-ta-lo egitea-ta berriro ere jatea!). Hamairugarren atal honetan superstizio maltzur bat igerian ari da Hawaii-ko uharte sakabanatuen artean, urruntasunen artean den-dena lotzen duen karakterizazioa baitago, gizatasuna urratzen duen eta logikari barre egiten dion... ez dakit, ba... musutxo bat, hiruzpalau gizasemek ezagutu genuen amatxo batek aspaldian, oso aspaldian, eman ziguna, ta orain, nahita ere, harrapatzerik ez daukaguna, Corella-ko kanposantuko lur hotzetan ostatu hartu duelako. Ez naiz harritzen, benetan, nire aita negarrez ikustez dagien bezala. Ez baita gutxiagorako. Patuari petrala deitzen nor izan zen lehena? Greziar bat ala euskaldun bat? Edo biak batera? Gaurko parrandak badakit luze joko duela. Bizialdi oso bat iraungo du; bizitzako aro bete bat beteko du. Aurpegi luze-luzeko Jesukristo Erdi-Arokoak, zure errukiaz zerbait egingo al duzu gutaz? Nik 303 gelara itzuli nahi nuke, eta han hiltzen dagoen lagunari nire maitasuna helarazi, zeren den-dena egin ez nuela pentsatuko baitut beti. Nork esan zuen gizatxarra nintzela? Zer dakizue zuek nire malkoen

garraztasunaz? Foru-Aldundiari beka eskatuko nioke. Baina... ongi pentsatuz gero, eurak dira niri beka eskatu beharko lidaketenak. Zeinen luzea izango den gaurko gaua! Zeinen ilargi betekoa! Nolako abiaduraz aldentzen diren hodeiak, ilargi beteko gauari itzala ez egitearren! maite dut, bai, lila-kolorea. 14. atala. Nik ere neure iritziak ditut, eta barkatu. Ez baitut inor iraindu nahi. “Por eso me callo”. “Pescado”. Esaterako, hori PESSOAK aitatzen zituen “ezinezko” horietariko bat izango zen, “arrain” hitzaz baliatu izan banintz. Digloxiak, bistan denez, bere alde onak ere baditu. Digloxiak —bistan denez— bere alde onak ere baditu. Orain, puristak ere pozik. Bejondeila “kanaila” horiei! Pozik nago, gaurko whisky-a merke samar atera zaidalako. Zein da aldea, Norris jauna? Batzuetan, “anonimoak” bidaltzen dizkidate. Ez gaizki maite nindutelako; baizik, ni neu “anonimo” samarra naizelako. Barka, ez nizun bizarretan bertan barre egin nahi; baina, zeinen ahuntz “politta” zaren kontuan hartuta, ez dut beste biderik aurkitu “bidea” aurkitzeko. Zerorrek barkatuko nau, tabernari jauna, zera: baina pentsatu dut agian kopatxo bat whisky on honetatik dastatzea gustatuko litzaizukeela. Berrehun ta bederatzi pezeta baino ez dira. Tabakoa ere sal diezazuket. Saterako, badut hemen ondoko kalean aurkitu dudana “farias” on —zer diot? bikain!— baten arrastoa, eta bost durotan zurea da, tabernari jaun prestu hori! Ez, ez naiz zutaz barre egiten ari; zutaz desternilatzen baizik. Hizkuntza bat ondo menperatzea bezalakorik ez dago, mixeria gorria

zeinen gorria den egiaztatzeko. Nik ere Arabako Lautadara joan nahi nuke, zori hobegoarekin aproba egitera. Izena, abizena, larrua eta sexua ere aldatuko nituzke, publiko maitagarriaren baimen eta beneindikazioarekin. Jarrantuko nuke, bai, egoera poliko honetaz hitz egiten, baldin-eta barre-
algarek eragotziko ez balidate. Dena den, ez da nire errua Arestiren seme galdua izatea... **15. atala.** Inork ez du deitzen; eta norbaitek deitzen duenean, “putasemea” deitzen dit (Kung-Fú). Ikusten duzu, ugazaba izatea nola ez den probetxuzkoa? Aulki baten gainean eserita nago; negar handiak egiten dituen aulki baten gainean. Goizeko ordubatean, negar eta negar egiten du. Eta nik ere negar egiten dut, behin, duela urte asko, maitatu nuen pertsona batengatik. Egia esan, urteak ziren hartaz gogoratzen ez nintzela. Urteak ziren nire umore txarra zuen guztion aurrean ateratzen ez nuela. Urteak ziren, bai, nire buruaren aurrean azkeneko aldiz jarri nintzela. Nor nintzen eta nor naizen! Nor naizen eta nor nintzen! Ezin dezaket esan bukatzeko hiruzpalau orri falta zaizkidanik; egia esan, jakin ere ez dakit zenbat urte geratzen zaizkidan, hiltzeko. Nire semeagatik baino ez zait inporta. Gainontzekoak garrantzi gutxi du-eta. Unibertso batekin egiten nuen amets, aspaldi-aspaldian; nire amak inoiz hil behar ez zuenean, ni gaez kaletik ibili behar ez zuen haur bat nintzelarik. Denbora urrun hura, hatzaparretan berriz bildu nahi nuke. Baina, herri arrotz batean nago, goizeko ordu txikietan, eta Donostiako danborradak Azpeitikoekin nahasten ditut, ordu

txiki hauetan, arrotz, herri batean. Horretan ez dut parekorik. Zer arraioa! 16. atala. Gaua aurreratzen doa. Eta nire etorkizuna hiztegian bilatzeko premia dut. “Ildo sakona”, azalezko zauriak ustez utzi behar ziguna; “luzaro gabe” jo zuen zoritxarrak nire atean; “goibeldu” zen arratsa nire bihotz barnean; “kolorebakarra” zen bizitza honetan eman zuen azken arnasa; ez nintzen negarretan urtu; ez nion eskutik heldu; ez nion maitasun-hitzik xuxurlatu belarrira; ez nion aitortu zenbat maite nuen; ez nion nire buruari galdetu: “zenbat ordu geratzen zaizkio?”, baizik “zenbat hilabete geratzen zaizkio?”; erruduna naiz. Ez dizut esango nire erruz hil zenik, nik XXX baitut izena, eta ez “Minbizi”. Hala ere, erruduna naiz, erruduna naiz, erruduna naiz. Nire amoranteak sentitzen zuen errutasuna, nirea da orain, eta ez daukat nire burua zerekin zuritu. Lerro hauek, hain zuzenak eta geometrikoak behar zutenak izan, pailazokeria huts bihurtuta, orain, momentu ergel honetan, izan ez naizen aukera guztiek lepotik hartzen nautelarik, negarrak barrez ateratzen zaizkidalarik, idazteko momentu monstruoso honetan, nik zer esango dizut, nire aita bezala hasten naiz negarrez, nitaz barre egin dezazun, bazkalordu patetiko honetan, gogora zaitezen bizitzak mila aurpegi dituela, eta zuk bakar bat ezagutuko bazenu, zure burua zoriontsutzat jotzeko arrazoi onak izango zenituzkeela. Bai, arrazoi duzu. Nork bere bekatuak ditu; eta ni ez naiz inor zu aspertzeko nire tristura intimo honekin. Maitale bat, esan dizut, izan nuela; baina, berak ez zuen honetaz ezer jakin. Oso lanpeturik baitzebilen

maitale berria bilatzen. Zigorra ala birtutea den, nork jakin! Nire malkoak benetakoak direla badakit. Badakit. 303 gelan izan nintzen. Ikusi nuen azken arnasa nola botatzen zuen. Une batez, airerik gabe geratutako panpina iruditu zitzaidan. Gero, badakit egin beharko nituzkeen gauzak ez nituela egin. 17. atala. Lurrean aztertzen jarraitzeko gogoia dut. Ikusiko dugu. Hau ez da lehiaketa. Baudelaire. Non dago Baudelaire? Ez dut aurkitzen, fisikoki esan nahi dut. Bakarrik falta zaigu orain telefonoak hots egitea! Gogoan dut, inoiz erantzun ez zidan poeta harro eta kazkar hura. Uste zuen munduaren amaiera ezagutzen zuela, eta txakurraren putzaren usainaren jabe baino ez zen. Izorra dadila, hura ere! Zeren hiri honetan, denontzako tokia dago. 18. atala. Eta ez pentsa amore eman dudanik. Xukadera ez dut nik botatzen arbitroa mozkortzen den arte. “Itxaron, piza egitera noa eta berehala izango naiz berriz ere zuekin guztiekin”. Hori esateagatik, Eusko Jaurlaritzako Jendaurreko Lehiatilatik bota egin ninduten. Beti pentsatu dut Administrazioan sentikortasun gutxiko gizasemeak daudela. Baudelaire, non zaude, “pillín?”. Nora egin duk ihes, nire botila eramanez? Eta zuk, noraino iritsi nahi duzu? Orri bakoitza madarikaturik dagoen une hau, zer dela-eta uzten nauzu hain bakarrik? Mundua argitaratzaile argiez beterik dago. Nik horren aurka, ezer ez. Bestalde, gutxi bustitzen direnak daude. Horiek ere, iraultzaileak. Baina, zein da nire lurraldea, nire tokia? Ezker-eskuin begiratzen dudanean, nire burua baino ez dut kausitzen. Narkizismoa? Ez, jaun-andreok. Zuek

zarete; egia onartzen ez baduzue ere. Oso erraza da. Orriak betetzeko sukar hau ez da zizpuru batez ahaz daitekeen gauza. Urrun, antzinako lurralde urrun horietako batean, itsas-txakurrak letxuak bezalakoak zirenean, Arabako Lautadan eta Ebroko lurraldeez bestaldean. Nik, une honen zain egon naiz, elizako organoak nire eskuetan noiz egingo zuen dardar. Sentimenduak bide ezkutuetan baitabilta. Eta nik, horra iritsi nahi nuen. Ez zen bide erraza, ezta zaila ere. Jakin behar, ordea, iristen. Bihotzean kizkurturik nabaritu dudan deia, beste garai batzuetako deia, sukalde zahar batean tiki-taka ibiltzen nintzenekoan, ikatza eta egurra, eta etxea kez betetzen zenean... Oroitzapen horiek! eztarrian korapiloa jartzen digutenak... Nolakoak zineten gogorazi nahi dizuet, eta besterik ez. Baina hori ez da garrantzitsuena; garrantzitsuena da, jakitea, gaurko gauan nor izango naizen: mozkorti bat ala mozkorti bat. Askatasuna, diozue? Zer da askatasuna, bada? Gaztetan kateaz zamatzen zintuen hura, akaso? Atsegina izan nahi dut, benetan. Idazten dut besterik egiten ez dakidalako. Hau ez da harrokería, baizik desgrazía. Benetan, ez dut inoren gainean eraginik izan nahi (nahi izango banu ere, ez nukeen lortuko eta). Mister ***. Bera olerkigintzan bezala, orobat ere ni prosagintzan. Ahots bitxi bat euskarazko itsaso bitxi honetan. Nik Pessoa ezagutu badut ere... nire itzulpenei esker. Barre egiten al duzu? Tira, eta zergatik ez... Itsaso zabal, sakon, barregarri honetan ikusi nahi zaitut, marsopekin borrokatzen, itsas-txakur gizarajo bat bizirik irensten. Ez baitago ezer ziurtaturik, euskal

espejismo honetan. Zu, ni zara; eta ni, inor ez. Gaua luzea da. Ilargi beteko gaua. Gazte jendea dantzan. Whisky-a merke samar atera zait gau honetan, botilatik zurrutean aritu naizelako. Orain, damu zait. Bi “santu damu” horietako bat naiz. Gaua, izotz-puskatxo bat da. Eta orain, Gasteizen nago, ezagutu berri dudan —maitatzen hasi berri naizen— emakume batekin. Beste errore bat! Horren ordeaz, hau egin izan banu! Nork nahi du jakin, “Eskuak” zenbaki sorginduan zer esan nahi nuen... Gaua izugarri gaztea da. Hasi berria. Hatzetan, gaketurik, geratu ziren mezuen eramailea da. Goian, auzokoak burutik jota gaudela pentsatuko du, gauez zaratak barreiatzen. Irakasle hartaz, ordea, beti oroituko naiz, patuak eskuratzen, laztantzen, utzi ez zidan irakasle bakarra ez baina “eetariko bat” izan zelako. Erlojuari begirada bat bota diot eta berak begirada itzuli dit segundu eta guzti. Vallejo lotan dago nire esku beti urrun egon zen Paris hartan (momentu honetan, maila gutxiko snobismoa izan zèn hartan). Zelan alderatuko dut nire hogeituro urteko tradizioa zure lauhun tradizioarekin? Goizeko ordubietan hiltzen sentitzen naiz. Badakit nire gibela minbiziaren beldur, zain, d(ago)ela. Baina ez da nahikoa. Mundua mundu denetik, aireak putz egiten du han eta hemen. Beraz, ez dut inorenganako arrenkurarik. Arestiren itzala? Ba, ez pentsa. Euren itzala sortu eta luzatu behar izan duten horietarikoa naiz. Berrehun eta hogeita bederatzi itzultzaile garena? Erraza da orduan! Egunero, bost mila pezetako erosketa, liburutan, besterik ez dugu egin

behar, eta berrehun eta hogeita bederatzi egunetan, denok aberatsak! Baina, ez; mundua askoz konplikatuagoa da. Hogei minutu falta dira ordubietarako. Goizeko momentutxo honetan, ni ez naiz ni, nire hats alkoholizatuaren erreflexua baizik. “Vespa” hortxe daukat, zain, “sereno”. Baina, letrak ez daude geldi. Gelditu nahi nuke, baina letrak hortxe daude, mehatxu bihurtu dira, koma eta puntua hortxe dauzkat, zain, “sereno”. Baina, letrak ez daude geldi. Gelditu nahi nuke, baina letrak hortxe daude, mehatxu bihurtu dira, koma eta puntua zer dela-eta idatzi ez dudan galdezka, errebindikazioa bailitzan. Orain, erresumako emagaldu guztien aldarrikapen xumea egin nahi nuke: mesedez, utz iezaguzue hiltzen, gu ere pertsonak gara-eta. Tekleatu behar da beti; hitz bat nahiz soinu bat ateratzeko, tekleatu behar da beti. Belarri-kontua ote den, auskalo. Baliteke desesperazio-kontua izatea. Beltza naiz; gizon beltza. Nire lurrean eta arrotzen lurrean “zergatik” galdetzen dut; nire larru-azalaren koloreak alderdi fisikoaz harantzago doan zerbait dela denek dakite, zuriek izan ezik. Edozein modutan, goizeko ordubiak dira eta nik “Vespa” hartu nahi dut, nire buruari gogorarazteko zorakeria bat egiteko gai oraindik ere banaizela, inori konturik eman gabe. Hori, ordea, lehen zen; emakumeek justiziaren ardura bere gain hartu baino lehen. Zeren, handik aurrera, dena oso logikoa eta oso aspergarria izan zen. **19. atala.** Zer espero dut nik? zer espero duzu zuk? Sariren bat...? **20. atala.** Arrazoi duzu. Egiaire aurre egiteko garaia da. Emagaldua naiz. Portuko

burdeletan eskaintzen dut nire urrea. Aste honetan ikastaro bat egiten ari naiz, euroarekin moldatzen ikasteko. Kontabilitate-liburuan azken penikea apuntatuta daukat. Zehatza naiz. Sentimentala, ez oso. Idatzi nahi dut jakin dudalako hortik diru asko irabaz daitekeelako. Behintzat, ikusten dut nire kolega askok eta askok hortik diru asko irabazi dutela. Farkatu, fubliko erresfetagarria. Ef da nire afmoa ifan inor mintzea. Fakarrik, une bateko forabioa baino ef da ifan. Dena den, egia da portuko emagaldua naizela. Eta eguna Horazio eta Verlaine irakurtzen igaro eta gero, gorputzeko sua itzaltzera jaisten naiz, portura, eta hango burdeletan itzaltzen dut barrutik kontsumitzen nauen sua. Emagaldu kulturaz eskas jantzia banaiz ere, gizarte barbaro honetan norbait naizela ematen dut. Horrez gain, sentikorra naiz. Emagaldu guztiak bezala. Ez da egia diruagatik egiten dudala. Hori baino gehiago da. Bizimodu hau... maite dut. Gizon baldar eta trauskilak; baina baita mutil gazteak, estreinatugabeak ere. Noizean behin, emakume bat edo beste... Leku honetatik denak pasatzen dira lehenago edo beranduago. Heriotza ere deitzen naute. Baina nik ez diet kasurik egiten. Ni ez naiz heriotza; ni munduko maitasuna naiz. Haragizko maitasuna, bai. Baina maitasuna, azken batean. Orain badakizue nor naizen. 21. atala. Nor naizen badakizuenez, aurkezpenik egitea ez da beharrezkoa. A, zelako ergelkeria! Papera betetzea da kontua. Bizitzan beti papera bete behar dugu (komunako papera barne). Idazle potolo horietako bat, bere etxeko atalondotik jada kabitzen ez dena

(hainbeste paper bete ditu-eta). Gauza benetan desatsegina da gelako objektuak oker ikustea. Gauzek zuzen egon behar dute beti. Bestela, gauzak gaizki dabilzan seinale. Astokeriak. Hutsalkeriak. Kontatzeko ezer ez daukanak honelako pijadak esaten bukatzen du. Holako mila “idazle” daude. Famatuak eta afamatuak. Pijoak. Cola-Cao on bat preziazteko gauza ez direnak. Bizitzaz ezer gutxi ulertzen dutenak, mini-boterearen kobazuloan koipe piska bat lortzen oso lanpeturik dabilzalarako. Begira, pentsa ezazu nahi duzuna nitaz. Baina onar ezazu abantailaz jokutzen duzula, nik ez baitaukat zutaz inolako erreferentziarik. 22. atala. Nire ama oroitzapen lauso bilakatzen hasi da. Banekien —azkenik— ahantziaren aurka borrokatu beharko nukeela; jakin ere banekien borroka galduta zegoela, alde zurretik. Ahantziak guk baino esku luze handiagoa du. Inporta diren gauzak eta inporta ez direnak ezabatzen ditu, maiestatez. Ba al dakizue? Corellako kanposantuan euskaraz idatzitako hilobi bat topatu nuen. Ez zen oso zaharra. Eta gainera, nire aitak zerbati kontatu zidan hildakoaren familiari buruz. Iruñakoak zirela, oso abertzaleak. Berak nortzuk ziren bazekiela. Osea, ezer ez. Eta aldi berean, asko. Herri txikietan denek dute elkarren berri. Ahantzia, ordea, haraino ere heltzen da; ahantzia heriotza bezalakoa delako: urrikigabea. Gaua da. Nire lana egitera joan behar dut. Badakizue, portuko emagaldutako bat naiz. Bezeroak zain ditut. Jende ona, langile finak, marinel dohakabeak, itsasoaren bakardadea begietan

idatzita daramatenak, benetako artistak (ez badakite ere!). Larrua jotzen dudanean, leioa irekita uzten dut beti, baita neguan ere, portutik datozkidan hotsak entzuteko: soka-hotsak, sirena-uluak, burdin-aieneak, zaindarien urratsak, metalezko itsasoaren ahotsa. Nire gainean bezeroa lanean aritzen den bitartean, gau horretan gutxi gorabehera zenbat irabaziko dudan kalkulatu dut. Ordubiak aldean jada badakizu gaua nola aterako den. Noski, ustekabeak gerta daitezke. Gogoratzen dut, gau batean, nire bezero bati frantsesa egiten nion bitartean, ospitalean hiltzen ari zen nire amaz oroitu nintzela. “Beharbada”, pentsatu nuen, “nire erruagatik hiltzen ari da. Lanbide hau bertan behera uzteko bezain indartsua ez naizelako”. Orduan, egun batzuz, ez nintzen portura jaitzi. Eta egun haietan, nire amak onera egiten zuela iruditu zitzaidan. Laster, ordea, portuko mina, nostalgia sartu zitzaidan eta berriro jaitzi nintzen. Bolada batez halaxe ibili nintzen: lanbidea uzten eta berriro ere hartzen. Sexuari uko egiteko borondaterik ez nuela egiaztatu nuen arte. Gaur egun ere, askotan pentsatzen dut, ezen, pertsona garbia izateko adina indar izan banu, nire ama ez legokeela hilda, gurekin bizitzen jarraituko lukeela, eta neurri handi batean nire erruz hil zela. Egia esan, ez dut uste hori egia denik. Hala ere, nork jakin... Bizitza hain da ulergaitza, misteriotsua... Batzuetan, nire buruari galdetzen diot ikusten nauen, honez gero ba ote dakien nor naizen, portuko emagaldia naizela, eta bizitza honetan sarritan tronpatu nintzela. Gogoratzen dut,

Santu guztien egunean, nire amaren hilobiaren aurrean, Corellan, unetxo batez “harekin” hitz egiten hasi nintzela: “Kaixo, Ama. Zu ikustera etorri naiz”. Halako korapiloa egin zitzaidan eta ez nuen jarraitzerik izan. Joan egin nintzen. Eta ez nintzen gehiago itzuli. Bost urte igaro dira ordudanik. Bost urte, edo bost egun, edo bost milurte. Denbora harrapatzeko neurria artean aurkitu gabe dago. 23. atala. Portura jaisten naizen bakoitzean, pentsatzen dut. “Gaua oso luzea izango da”. Ordubiak aldean, ordea, neke-neke eginda nago. Nire gainean ufaka dabilen txoari darion alkohol usaina da piskat izorratzen nauen gauza bakarra. Bestela, gainontzekoa, ez zait asko inporta. Ohituta nago-eta. Erdeinua jasatera ere bai. Portuko emagaldua naizelako. Nirekin oheratzen diren gizonak oheratu baino lehen maite naute, eta ondoren, mesprezatu egiten naute. Ez ditut inoiz ulertuko. Gainera, ni emakume garbia naiz. Jainkoak badaki zeinen emakume garbia naizen. Denek ezin dute gauza bera esan... Nik kontatuko banizue! Baina ez dizuet ezer kontatuko emakume txar horiei buruz. Begiak ixten ditut eta portuko nostalgia, isiltasuna, neguko hotz miressgarria topatzen ditut, ia-ia eskuekin uki ditzaket. Ilargia ez da ikusten, baina nik badakit hor nonbait dagoela. Igartzen dut, lehenik nire gorputzean; eta bigarrenik, nire bila datozen gizonengan. Ilargia bete ahala, urduritasuna sartzen zaigu gorputzean. Horretaz oraindik ohartu ez dena edo hilda dago edo ez daki ezer bizitzari buruz. Bai, gau osoa daukat niretzat eta nire bezeroentzat. Zu nire

bezeroa zara, ezta? 24. atala. Luna que rompes de luz esta explanada herbórea, en la que vivo y muero tantas veces, y agoniza la sombra de mi suerte echada al viento, pervertida sensación de lumbre y cenizas que bailan la danza de las brujas locas. El odre del vino y las palabras vierto en esta copa absurda, y percibo tantas sensaciones como términos hallo en el diccionario. Gozamina lehertzen zait barrenean, eta une honetan ez dakit non hasi eta non bukatzen naizen. Olerkaria naiz. Hitzen aberria galdu zuen olerkari baten oroitzapena naiz. Sekretuak argitara ematen ditut, eta atzera itzultzen dut bista, porrusalda honetatik noiz aterako irrikan. Palabras muertas que hablan de la putrefacción del alma adulta (“cuanto más viejo, más pendejo”). Gau osoa zabaltzen zait aurrean. Nire gaixotasuna sendatuko duen kinina. Nire askatasuna askatuko duen kartzela. Eta nire arimaren gaurko unea mekanografiatzea ere! eta Gabonetako mazapanak ezer gertatu izan ez balitz bezala jaten jarraitzea ere! Bizitzaren mekanika hori da, ordea. Batek besteen txuak bereganatzea. Mintzak esnatu egin zaizkit, jaun-andreok! Hola jarraituz gero, txortan egitea maite duen puta bakarra izaten amaituko naiz! eta barkatu. Nik ez dut nire ahots gozoari traizio egiteko asmorik. Pertsona gozoa izaten jarraitu nahi dut. Ez harroa ez berritsua (vocinglero); arimatik bertatik darion ahotsa baizik (“arima”: zer da hori?). Apala baina egiazkoa, jatorra. Idazpurua da une honi falta zaion gauza bakarra. Hara, ipuinak ere idazten hasiko nintzateke orain bertan! Mutil gazteak maite ditut,

bai, emagaldua izanik! Udan larruz aldatzen naiz. Neskatoa nintzen garaiaz oroitzen naiz. Delikatua naiz, kitarra klasikoa bezain. Auskalo, goizeko ordubiak zein ordutan iritsiko diren. “Ni gixon pottolo bat baino ez naiz”. Gezurra! Portuko emagaldua! Emagalduen artean galduena! Gustora bizi naiz nire larruan. Gizonen neskatoa; gizon egarrien jolasa; gizon galduen emakume galdua; itsas zeruertzetako plazerra eta desplazerra! nire ahotsa zuengana iritsiko balitz! niri entzuteko bezain belarri finak bazenituzte! baina zuek, gizaseme gizarajook, apur bat gorra zarete, eta nik hainbeste maite nuen nire amak bezala jokatzeko duzue sarri: ona baztertuz, txarrari helduz. Ez, nik ez diot inori ezer aurpegiratzen. Gizon bat nire gainean daukat une honetan, ni “lantzen”. Ez zaio altxatzen gizarajoari. Lagundu ahal izango nioke baina ez dut nahi (emagaldua naizen arren, apetatsua naiz, emakume guztiak bezala). Kolpatu nau. Altxatzen ez zaiolako kolpatu nau. Zaplasteko ederra eman dit. Eta ditiburuetatik gogor, oso gogor tiratu dit jarraian. Gero, beste zaplasteko bat; eta beste bat; eta beste bat... Hori gustatzen zaiola konturatu naiz. Eta azkenez, altxatu, nire barruan sartu, eta txua bota arte ez da gelditu. Gizarajoa! Hamabost mila utzi dit mesanotxean. Bihotzimikoek ala beldurrak jota zegoen... auskalo. Nik portuko zaratak baino ez nituen entzuten; batez ere, garabia zaharrak ateratzen dituenak, gauez, inork ez badarabil ere. Portuak ez dakizue zeinen misterioitsuak izan daitezkeen gauez. Portuetan munduak daukan zentzua —eta absurdua— biltzen

da. Itsas gorak ekartzen dizkigun gauzak, itsas beherak kentzen dizkigunak. Eta kea. Zigarroen kea, non idazten ditudan nire poemak. Zeren ni, oso ongi iragarri duzuenez, emagaldua izateaz gain, poeta ere banaiz. Y una perra. 25. atala. Interneten zerbait soberan baldin badago, espazioa da, zalantzarik gabe. 26. atala. Gaua, zeinen luzea den gaua! nola maite dudan! nola itxaroten dudan astero-astero, ostiralak ekartzen didan arte! Bai, beti izan nintzen parrandazale handia! Gogoratzen dut, amak gauez afaria prest uzten zidala, itzultzen nintzenerako. Patata tortila batez ere. Zeinen emakume ona izan zen! Mundu guztia bera izan zen bezala balitz, zeinen gozoa eta ederra izango litzateke gure mundua! Harrokeriaren gurdiak eramaten gaitu ordea, hara-hona. Esku artetik eskapatzen zaizkidan une hauek! Ai-ai-ai! eskapatu egiten zaizkit... Oroitzapen baten iheskortasuna du gure bizitzak. Ez, lasai. Ez naiz salmoak abesten hasiko. Interneten espazio asko badago ere. Lasai, zerbait asmatuko dute gu izorratzeko. Diru gehiago eskatuko digute ziurraski. Kabroitxo horiek den-dena daukate ondo lotuta. Una portezuela pelada que nos señala la nada por la que nos diluiremos. Y el poder de la poesía que no es sino la cura de la enfermedad, que es el sueño, que nos aprisiona y acuna en esta noche lunar, de axfisia y morriña, y un puente tendido a la distancia, un puente de hierro, y una infancia peregrina en su sentido literal, puro, que se palpa, en cada símbolo y en cada vuelta de torno. La carne que huye del calvario, que se arrastra y... Nabukodonosor! Tengo

los piojos revueltos hoy. Será el viento de la madrugada, que atosiga el semblante. Sabotaje sadikoa; dinamita merkea. Lehertarazi behar dira iturriko urak, egarria kentzeko aukera sekula izan ez dezagun. Ez, mila aldiz ez! **27. atala.** Beharbada, amaiera eman beharko nioke “kontaketa” honi. Ez dakit. Eta “pipuin” berri bati hasiera eman. Batzuetan, tematu egiten gara. “Eleberririk luzeena”; “soldatarik mardulena”; “kotxerik onena”. Tema hutsa. Gaurko gauan sorginak deika ari zaizkit. Xuxurlatzen didate: “Zatoz gurekin mendira. Sute bat piztu eta dantza egingo dugu”. Poetika falta zaigu. Elkarte sekretu bat sortu beharko genuke, ontasunez baina sentsualtasunez dibertitzeko. Ez dut esaten bizioan erori behar dugunik. Bizioan erorita gaude gaurgero... Bakarrik diot sorginak berreskuratu egin behar ditugula, bizira ekarri. Bestela, Euskal Herriak jai dauka. Euskal Herriak emakumeak behar ditu; baina emakume zoroak, sute baten inguruan dantza egiteko prest dauden horietakoak. Izarrei begira izarrengatik negar egitea; suari begira suarengatik negar egitea. Behar dugu hasierara itzuli; atal berri batera, beharbada. **28. atala.** Gaua hain luzea denean, motza eta guzti egiten zait. Nahi nuke nire Vespa hartu eta Bilbo alderantz eskapatu. Inoiz ikusi ez dudan burdinazko zubia nire begiez ikusi, nire eskuez ukitu. Eta, agian, neska bilbotar baten etxebizitza ezagutu... Amets zahar bat, erkainetan daramadan bihotzarekin idatziz jartzen dudana... Ez, ez dut hiztegian gehiago begiratuko nire etorkizuna. Gehiegitxo begiratzen dut asteko egun

guztietan. Gaur, ez. Gaurko gaua niretzako da. Gaurko gau honetan nire ahotsa galdurik baina aske zerua zeharkatzen duen txoria da (edo eulia); beharbada, aintzinako hegazia (edo intsektua), bitxia, arrotza, urruna... Ez, jada ez dut inspirazioa hiztegian bilatu nahi; nigan, ala inon ez. Zaude, txupitoak agian lagunduko dit... zerbait ulertzen, “errealitateari” atzematen, nor naizen jakiten, nor izan naizen ulertzen. Hiztegia hilda dago; lotara joan da, jaun-andreok. Hiztegia nortasun anitzeko gizaseme bat da. Nik hitzak jaten ditut, hitzez elikatzen naiz. Ni naiz hiztegi guztiak eta hiztegi guztietan dagoen hitza. Sinetsi ezazu nigan... eta okertuko zara. Humanitatea okertu den bezala. Sinesteagatik. Sinesteagatik beti. Baina... hain da tristea sinesteko ezer ez edukitzea. Ikusten al duzue nola hizkuntza zahar honetaz dardarka jartzen gaituzten gauza asko eta asko esateko gai garen? Klabrikordioak betetzen nau barrutik. Beste garai bateko soinuak sartzen dira nigan. Erlojuari begiratzen diot eta gizon bat aurkitzen dut orratzetatik zintzilik. “Ez kezatu” ohitu egiten diot, “nigatik bada, jarraitu zure egiteko horretan”. Berak irri egiten dit. 29. atala. Badakit dezepzionatu egin zaitudala. Zuk ez zenekien ni emagaldua nintzenik. Uste zenuen idazlea nintzela, goi-mailako haizeak arnasartzen dituen pribilegiatua. Muinoan belarrrik ez dago; lurra biluztasun osoz azaltzen zaigu. Haragia ere halakoa da, hutsa. Uharte batean bost urtez bizi izan nintzen, bakarrik. Galdu nuen gizakiekin jokatzeko ohitura. Zeren den-dena baita ohitura-kontua.

Uharte hartan, ez zuhaitzik ez horlegi-kolorerik ez zuen uharte hartan, haitzak eta arrokak baino ez zeuden, itsasoak egunero kolpatzen zituenak, amorruez, gupidagabe, antsia sadikoaz. Uharte hartan galdu nituen nire bizitzako urterik onenak eta ez zait damu. Han ez nintzen indarrez egon, ezta beharturik egon. Gaztaroko kartzela borondatez onartzen baitugu... Nire hatzak, xirula hain modu zoragarrian jotzen duten nire hatzak, biziz beterik daude, hasieratik hasteko prest, ezer gertatu izan ez balitz bezala. Filmeko protagonista hark esaten zuen bezala. Den-dena imitatzen dugulako. Tximinioarengandik gatzela ez dago dudarik! Haizea mozten duten guraize luzeak; alperrik botatako izerdia xukatzen duen eskuzapia; inoiz oso ondo ulertuko ez dugun auzokoaren arrenkura gaiztoa. Atalez atal, gure destinura iristen gara. Halabeharrez; nahitaez. Ilusioz beharbada, geuk nahi genuelako... Ito, ez dakit zenbat aldiz piano horren teklatuan ito... Ooooo! Zuek gidoi bat nahi zenuten, ezta? Ooooo! Hau bai despistea! Gidoia ahaztu zait. Ooooo! Lasai, umetxook, nik zuek nahi duzuen gidoia emango dizuet. Bai, tontakeriak esaten jarraituko dut. Azken finean, hori da idazle batengandik denok espero duguna. Tontakeriak. Mundua tontakeria handia delako. Jakituria eleberri batean aurkituko dugula sinestea bezain ergelkeria. Egia ez da inon aurkitzen, pornografian baizik. Ni pornografo bat nintzen. Eta zuek, nire esklabuak. Jiraka dabilkit mundua. Nonbaitera iritsi gura dut. Orain, piska bat bizkaitiarra naiz. Lekeitio. Gernika eta Mundaka

eta Getariako txakolina. Barka, hori Gipuzkoa da. Baina, niretzat, Kontxintxina balitz bezala. Bularrean pizten zaidan garra nork amatatuko du? Zera, jakin nahi al duzue Manrike-ren koplak zer dela-eta jarri nituen euskaraz? Nire ama hiltzen ari zelako. Horregatik. Ni ez nintzelako olerkaria; eta idazteko oso gaitasun gutxi nituelako, momentu hartan. Zerbait esan nahi nuen; nire tristura nigandik atera, erauzi nahi nuen. Horregatik jarri nuen euskaraz Manrike-ren olerki ospetsua, “Koplak Aitaren Heriotzagatik”. “Haren” ez nuen apropos erabili nahi izan; neronen aita zelako. Baina, egiatan, aita baino, nire ama zen hildakoa, oraindik erabat hilda ez bazegoen ere. Baina, denbora lagun (luze itxaron gabe gainera), hilda egongo zen, jakina. Ikusten al duzue? Hitzontzioi beti eskapatzen zaigu sekretu bat edo beste. Sekretu Handia. Sekretu Handiaren ahotik sartu zen eta sekula ez genuen haren berririk izan. Sekretuak berarekin eraman zuen; edo alderantziz, sekretua berarekin eraman zuen. Garrantzi handirik ez daukana, ondorioa bat-bera da-eta. Bibolinak gaua zeharkatzen duten labanak dira, eta nire bularrean harribitxiaren dirdiraz lehertzen dira. **30. atala**. Este espacio inconmesurable; esta ciudad aparcada en el olvido de una civilización impulsada sin quererlo hacia adelante; este chorreo de palabras que fluye inagotable hasta llenarme las faringes de tierra y sal, yo, que nunca he consistido en nada! Y así, desnudo del tiempo y de la nada, camino hacia simientes de trigo en la Llanura Alavesa, alagando a los vascos de pro que con orgullo resisten al

embate de los obstinados castellanos. ¡Viva la Alava euskaldun! ¡Viva la Navarra de los vascones! ¡Viva los vascos de iparralde que continúan soñando en euskara! Cuánto trabajo queda por hacer... Beste kafe bat hartuko nuke, benetan. **31. atala.** Faunoak sastrakatik begiratzen dit. Noizean behin, paisajeaz aldatu behar da, izaten jarraitu ahal izateko. Xirula biriketan kokatu zait; eta hitz egitean, soinua ateratzen du. Entzun egiten dut, bihotzeko belarriekin. Ez baitut besterik, aurpegian. Gaua, zakurrak bilatzen duen jabea gau horretan haztamuka dabil hondartzan olatuen xuxurla ezpataz zauritzen eta haizea harroturik harealeak bidaltzen ditu urrun gu ez gauden kalezulora non mozkortiak abesten ari baitira abesti lizunak graziaz beterik gaueko heroiak gaueko txori-galduak eguzkiari deika hurrengo egunsentian kaian esnatzen lehenak diren antxetak txio-txioka eta gu zer ari gara mozkortzen hamalau urterekin zer ari gara bolean dauzkagun azken sosa gastatzen zer ari gara gure amak irakatsi ez zigun hizkuntza honetan gure barrua husten nora igotzen zaigu arima? gau honen erdian olerkariak gara xirulak eta bibolinak dira gure lumak hasi! hasi bidea zabaltzen! nik negarra dut korapilatuta gorbataren korapiloan eta oraindik ez dakit nola egiten den (gorbataren korapilo hau). **32. atala.** Ondo da. Lehen heroikotasuna aipatu dizuet. Eta orain, emakume baten bizitza heroikoa aipatuko dut. Esatera nindoan, “kontakuko dizuet”. Baina ez dut uste hainbeste egingo dudarik. Gainera, nork jakin nondik aterako naizen. Begiak itxi... eta

Pegasori utzi diot nahi duen tokira ni eramaten... Heroikotasuna. Bizitza apala. Txikitan Irunen erortzen ikusitako bonbak. Gosea. Aita —nire aitona— baten tratu txarrak. Gazterik hil zitzaion ama. Amaordea. Gazterik hil zitzaion ahizpa. Handik urte batzuetara, neba. Donostiako Erresidentzian lan apaletan igarotako urteak. Erretzaile guztion keak irentsi zituena txintik atera gabe. Behin edo behin, txikitan zaplasteko bat edo beste jaso zituena. Den-dena barkatzen jakin zuena. Hura ez zen ama izan, Birjina baizik! heroia! Wagner-ren pertsonaia mitikoa! Heroikotasuna zer den jakin nahi baduzue (goizetik goizera kale gorria aurkitu zenekoan! nola ibili zen gora eta behera bere kumeen ongizatea ziurtatu nahian!) Heroikotasuna. Zer da hitz hori? Vietnam-en ezeren truke, ezerengatik, hildako soldaduak? gure lurrean isilean afusilatutakoak? Ez dakit zer den heroikotasuna. Baina, gizakioi darion birtutea dela badakit. Begiak ixten ditut, gaueko existentzia isil honetatik sortzen den anabasa besarkatzeko. Bai, mila aldiz errepikatuko dizuet. Bai. Isiltasun horretan dago heroikotasuna. Entzun! Orain aterako da disparoa! Zer da hori? Mehatxua? Hau ez da Jainkoak zin egin zigun mundua! Hau ez da negar bakar bat ere merezi duen mundua! Bizitzaren zentzu heroiko hau ez dakit nondik sortu den, non ezkutatu den! Hari entzuten geratzen naiz, eta bularrean nire aberria bezain txikia bezain itzela den sentimendua hazten somatzen dut —espero dut nire auzokoa ez izorratzea...—. Ez. Gau honetan sentimendu ederrak, goi-mailako sentimenduak

hazten direneko gaua da. Gau honetan, inoiz sentitu ez dudana sentituko dut. Gau honetan ez diot tekleatzeari utziko; eta Jainkoak eta Musek nahi badute, Pasealeku berrian ikusiko dut egunsentia urratzen; hiria urratzen; nire sentimenduak urratzen; nire malkoak urratzen; Jainkoak, eta Musek, nahi badute, gaur gauean ez dut lorik egingo, eta nire semeaz ia-ia ez naiz oroitu ere egingo. Heroikotasuna. Gure gudariena. Gugatik, Euskal Herriagatik, eurengatik, borrokatu egin zirena. Hortxe, gure eskuetan, gure ezpainetan, hain erraza dastatzen, ulertzen, gure egiten. Ez, egon ziur hiztegi-beharrik izango ez dudala, gaur gauean ez behintzat. Olatuak altxatzen dira hiriko sarreran, eta zubia irentsiko dutela ematen du. A, eta mairuak! Haiek ere heroikoak izan dira, gero! Denboraren joan-etorriei eutsi dioten bakarrak! Munduko mixerableak, pobreak, txiroak, apalena! Hitzez betetzen zaigun mundu hau. Zeinen pobrea den... Norbaitek lezio on bat ematen dizun arte. Txetxeniarren herriak, esaterako! Tira, ez dut gaurko gauari izenik eman nahi. Gaurko gauak berezia izan behar du, egunsentiraino irauteko modukoa! Eskuetan korapilatzen zaidan sorginkeria. Astigarragako sorginak mendi ilunetan dantzan. Astigarragako sorginak euren sagardoaz mozkortzen. Aurrerantz begiratzen dut baina ez dut ezer ikusten. Soil-soilik eztarrian sentitzen dudana maitasun heroikoa, abertzalea ia-ia, haize-zirimolek eurekin eramango banindute bezala, Texas-ko espazio arrotzean zehar, heriotza-zigorra egiazkoa den lurraldean (estatuaren onspenaz, herritar

askoren onespenaz), eta zentzu heroikoa, gauari darion zentzu heroiko horixe, zainetatik darit, ez dakit noraino, nire gorputza unibertsoa bezalakoa delako, ez dakit non bukatzen den, ez dakit non, ez dakit non, ez dakit non, ez dakit non! Agian, Corellan bukatzen zait. Badakizue, hango kanposantuan, hildako bat, hildako maitagarri bat, dagoen lurrean... eta mahastiak... eta eztarria gozatuko digun ardoa... Haiek bai barbaroak, eta ez gu... Ordubietan esnatzen naiz nire iratzartze honetatik. Eta inguruan begiratzen dudanean, nire buruari galde egiten diot: “Non, non daude euskaldunak?”. Altzifresaren itzalak esku bat luzatzen dit, lurreko gauzak errazago ulertzeko. Ezpatatz hilko gara. **33. atala.** Ez, ni ez nago ados. Eta gero eta garbiago ikusten dut: aurikularrak erosi behar ditut; bestela, eleberri honen batasuna arriskuan dago. Alaitasuna. Berreskura dezagun alaitasuna. Iruñaz harantzago, mahasti-lurretan dagoen alaitasuna (pitzatua) atera dezagun argitara. Ez. Hau bai zoramena. Atalaren batasuna ez dut inondik aurkitzen. Aurikularren erruagatik. Edertasuna. Bularra edertasunez betetzen digun soinua. Errepikatu! Berriro! Beste behin! Estimulagarria da! Karbonoa! Aita Santua! Rudolf Diesel! Amsterdam! Urpekontzia! Lainoan gure sentimenduak ezkututzen direnean... Esan nahi duguna sasi-erudizioaren atzean ezkututzen denean... Leher bitez Donostiako kaleak Donostiako danborrekin! Hori ere heroikotasuna da! danborreruak suhiltzaileen koartelaren aurrean gelditzen direnean! kartzela isilaren aurrean kotxe

bat klaxonoa jotzen pasatzen denean! Edonola ere, heroikotasunaz kopetaraino nago. Ziurraski, nire auzokoak ere nitaz kopetaraino daude. Zaratarik txikienak izugarri ozenak dira gauez. **34. atala.** Arranoa naiz. Zerua zeharkatzen dut. Goitik, gizakiak harrak bezalakoak dira. Saguzaharrak gozoak dira, jainkozko jakiak. Oihu egiten dut zeruaren aurka. Arrano gaztea naizenez, fede amaigabea dut nire indarrean. Habian hiru kume ditut nire zain, horietako bi bakarrik aurrera aterako badira ere. Nire emea ere hortik dabil, ni bezala. Ohituta nago mendi-tontorrek ikustera. Ez naiz horrelako gauez harritzen, ni neu gauza horietariko bat naizelako. Behean, zuhaizti zarratuak, nire hatzaparretatik ezkututzen diren saguak. Mintzoz motela naiz; baina, azken batean, arranoa (arrano-mota bat). **35. atala.** Eleberriak idazten dituzten idazleek bizitzatik poliki-poliki igaro nahi dute, presarik gabe. Horrela, luzarago biziko direla iruditzen zaie; noski, sentsazioa baino ez da. **36. atala.** Sentsualtasunik gabe ez dut bizitzen jakin nahi (zeren, gehienek, bai, badakite...). Musak. Euskal musak. Mendietan, dantzan, algaraz, sorgin-hitzak eta edabeak asmatzen... Gaupasa ederra basoaren erdian. **37. atala.** Exotismoa. La-ra-rai-lai-ra-la-rai. Soinu itsuak, nolabait heltzen zaizkigunak. Beharbada, honi amaiera eman beharko nioke. Baina, zergatik ez itxaron? Gau luzea, gau osoa daukat niretzat. Zer dela-eta amaiera bilatu? Telebistan diti pare bat ikusteko? Asteburuetako ergelkeria. Hemen ez dago heroikotasunik. Narkizismoa, elkartasunik eza

eta oso azkar dabilen kotxea erosteko nahia. Ez. Iradokizuna beste nonbait bilatu behar da. Iradokizuna lau digitoko zenbakia da. Aurkitu behar da, baina. Egunsentiko zirrindola agertu arte eutsi beharra dago. Mairuak. Horiek ere gogor samarrak. Ez hobeak ez txarragoak. Gogorrak; burugogorrak; ausartak; ankerrak (besteak bezalakoxeak, alde horretatik...) 38. atala. Ondo da. Gaua amaitzen ari zela uste nuen nik eta... usteak ustel. Hasi baino ez du egin eta. Tronpetak. Argi asko gure begien aurrean. Zerbait egin beharra dago. Hor kanpoan, kalean, ezagutzen ez dudan gizon batek zelatatzen nau. Ez dakit zergatik dagoen hor kanpoan. Izan daiteke ni hiltzeko asmoa duelako. Baina zergatik hil beharko ninduke? Beharbada, portuko emagaldua naizelako; edo korritzen jakin ez zuelako; edo nire auzokoak — amorrus gorrotatzen nauen auzokoak— ni hiltzeko enkargua eman diolako; edo poliziak pertsonaz tronpatu direlako; edo tronpatu ez direlako. Danbolinak. Tronpetak eta danborrak. Edozer izan daiteke. Amazonas sartu zaigu Euskal Herriko kaleetan. Semaforoak zeuden tokian palmondoak altxatzen dira orain; eta horien atzean ezkutaturik, edozer: kokrofiloak, armiarma ifugarriak, fuge erraldoiak... eta maitafuna. Oihaneko maitafuna. Berezia da. Nik ondo dakit, puta honek (zibilizazioak Brasileko lur birjinetatik erauzi ninduelako). Orduko hartan, nire oihana, nire zuhaitzak, nire basapiztiak eta nire herria bezain birjina nintzen. Baina heldu ziren gizonak, gizon zuriak (zergatik ote da zuri-kolorekoak garbitasuna

sinbolizatzen duela? Inork ez zion beltzei, indigenei galde egingo, seguru). Eta den-dena eraman zuten beraiekin: zeruko hegazti miresgarriak —jainkoen mezulariak zirenak!—, zuhaitzen solasa motela gauetan, nire bihotz basatia eta nire oroitzapenik ezkutuenak. Orain, hemen nago. Portuko taberna honetan. Egon ninteke, ez pentsa, hiriko etxeren batean neskame. Baina nik leku hau maiteago dut. Hemen, behintzat, burdel honetan, oihaneko basatasuna, askatasuna bizi dezaket. Neurri batean... Burdelera jaisten naizen bakoitzean, beti pentsatzen dut: “gaua oso luzea izango da, eta izarrak ikusiko ditut larrua jotzen ninduten bitartean, nire gelaskako leihotxotik, gizonen izerdi pilatuaren erdian”. Hau da nire mundua; zuena; zuen munduaren estolderia. Baina, hemendik, denak igarotzen dira. Jaiotza eta heriotza bezalakoa da. Dei misteriotsua. Hanka pare baten erdian hasten den misterioa. Batzuetan, miretsita, nire hanka arteko zulora begira geratzen naiz, zer arraio ikusiko ote duten galdezka... Ahotsak. Dantzak. Bozkario zaharra. Nik ere nahi dut sanba horretaz gozatu. Aldakak mugitzen hasten naiz eta gizon guztien begiradak nigan josita geratzen dira. Sorginduta uzten ditut. Aberatsak eta pobreak. Injineruak eta langile xumeak. Gazteak eta zaharrak. Oihaneko danborrak nire buruan joka entzuten ditudanean, zoroa bezala hasten naiz dantzan. Eta inork ez daki zehatz-mehatz zer gertatzen den, baina burdela sorgindu egiten dudala esaten didate beti nire lankideek. Gustatu egiten zaie, noski. Beharbada, edarien errua izango da.

Edaten ohituta baikaude. Langileak gara. Sindikatu batean izena eman beharko genukeela esan zidan behin nigana sarritan etortzen zen bezero gazte batek. Iraultzailea zen. Beno, nik behintzat “Iraultzaile” deitzen nion. Berari gustatzen zitzaion, nonbait. Oso gaztea zen. Ez zekien bizitzan halako kadentzia bat dagoela; eta jarraiki egin behar zaiola. Bestela, norabidez tronpatu eta nahi ez duzun lekuan amaitzen zara. Dena den, egia da, bai, berdin diola toki batean zein bestean amaitzea. Baldin-eta leku basatia bada. Basatia ez bada, orduan bulegoren batean erori zaren seinale. Ni ohituta nago oihaneko lurrinak arnasten. Tinta-eta paper- eta toner- eta berokuntza-usaina ez dut gogoko; usain horiek zorabiatu egiten naute. Bakoitzari berea. Nire ama gaxoak hiltzen irakatsi zidan, ez alferrik. Egunak zenbatuta dauzkagula gauza jakina izanik, zertarako jokatu koldarkeriaz patuaren aurrean? hau da, zergatik men egin patuaren aurrean? Ez, gu, oihaneko biztanleok, ez gara grekoak, ez gatoz grekoengandik, ez gara zibilizatuak. Piska bat “ganbuinoak” apika. Baina, ezta hori ere. Zeren horiek zerbaiten bila zebiltzaten, urrearen bila; eta behin aurkituta, bertan behera lagatzen bazuten ere, euren bilaketaren zentzua hori zen. Guk hori arbuiatzen dugu, aurkikuntza ezezik, bilakuntza bera arbuiatzen dugu. Horregatik diraut burdel honetan. Hemen dagoenak ezer berezirik bilatzen ez duelako; gehienez jota, jatekoa. Oihanean bezala, jatekoa. Itxaropena? Ja! hori zibilizazioa da. Eta gu ez gara herritarrak, are gutxiago hiritarrak. Basotar

izenak berak ere halako “hezkuntza” jasangaitz bat dakar berekin... Sugea ez da basotarra, gu ere ez garen bezala. Eta gustatu egiten zaigu. Dena den, aitortu behar dut, ezen, batzuetan, zibilizazioa ulertzeko gogo izugarria sentitzen dudala. Batik bat, bezeroak larrua indarrez jotzen didanean, zerbait ulertzea iruditzen zait. Baina oihaneko sentsazioa areagotzea besterik ez dut egiatan lortzen. Etenak. Munduan eten asko daude. Eta ni, horietariko batean nago. Dotorezia zer den jakiteko, ez duzu New York-era joan beharrik; zatoz nire putetxera, eta ikusiko duzu zer den edukazioa, hezkuntza ona, benetako zibilizazioa. Ondo pasatzeko gidaliburua eta guzti oparituko dizut. “Eta altxatzen ez bazaizu, zure dirua itzuliko dizugu”. Y una mierda. Dirua, behin emanaz gero, ez da inoiz berreskuratzen. Hori, hiltzea bezalakoa da. Behin hilez gero, ez zara sekula berriro berpizten. Beno, itxuraz, behintzat... Oihanean, bestelako iritziak bageneuzkan ere. Berpizkudean sinesten genuen, bai, baina ez zuen eliza katolikoak aditzera ematen zuen berpizkunde berbera. Esaterako, suge batek hiltzen bazintuen, orduan hurrengo bizialdian sugea izango zinen; kokrodiloak jaten bazintuen, orduan, hurrengo bizitzan kokrodilo bihurtuko zinen. Eta abar. Horregatik, animaliarik izugarrienak ere gurtu egiten genituen. Basatiak ginen. Gure atxilotutakoen haragia jaten genuen, etsaien indarra gureganatzeko balio zigula uste genuelako; eta potroetatik ateratzen zitzaigulako; eta legeak geuk egiten genituelako, eta ez ondo jaiotako lau lapur

alprojak, zuek ohituta zaudeten bezala. Baina bakoitzari berea. Nik neure herria maite nuen, bere akatsekin. Zuena, ordea, bere birtuteekin ere ezin izan dut orain arte maitatzea lortu. Hitz larriak dira hauek; beraz, ez dut uste ulertuko nauzuenik. Oso lanpeturik zabilzate-eta dirua irabazten, iraultza egiten. Herritar zintzoek egin behar duten bezala. Zeren zuek zintzoak zarete, oso. Horregatik iraun duzue menderen mendetan, zintzoak zaretelako. Zaude. Bezero bat. “Bai, zuk ere kitzikatzen nauzu. Hamar mila, frantsesa barne. Oso ondo, laztana. Hemendik. Ez, ez; ezin didazu gainean txiza egin. Hori pelikuletan bai, egin daiteke. Pantailaz harantzago usain gaiztoa heltzen ez denez... Lotu? Nik zuri ni lotzen utzi? Ja-jai! Begira, esango dizut zehatz-mehatz zer egin dezakegun: nire ahoan sartu, nire aluan sartu eta nire ipurdizuloan sartu. Besterik ez. Bai, hori bakarrik hamar mila pezetako letxua baten truke. Azkarra haiz, hi! Ederki, elkarri ulertzen diogu. Bai, nik ere maite zaitut”. Gaurko gaua ondo doa. Erritmoa du. Eta, nola esaten zen...? Bibrazioak, bai. Bibrazio onak sumatzen ditut. Agian, gaur norbaitez maiteminduko naiz. Batzuetan, maitemindu egiten naiz. Ez dakit zergatik, baina ilargia beteta dagoela gertatu ohi zait. Nire basatasunaren beste froga bat. Bero nagoenean, ugaltzeko momentu egokia iristen zaidanean, orduan “maitemintzeko” joera ezohizkoa erakusten dut. Izadiak den-dena egiten du gure orde. Hori ulertzen ez duenak ez daki bizitza zertan den. Nire obulua (ala plurala erabili beharko nuke...?) behar den tokirantz abiatzen

denean, maitale baten bila hasten naiz: ulertuko nauen gizonaren bila, babestuko nauen txuloaren bila, ferekatuko nauen “senarraren” bila... Espejismo hutsa. Horrelako momentuetan, barmanari esaten diot bolumena igotzeko. Erdi gorra da-eta ez dit kasurik egiten; edari gehiago eskatzen diodala uste du eta beste “katxarro” bat ateratzen dit. Noski, oparia onartzen diot, zeren edatea izugarri gustatzen zait. Halako batean, gaueko giroa puskatu, hautsi egiten da. Ez dut ezer ulertzen. Inguruan begiratzen dut eta basoan galdutako neskatoaren benetako sentimendua jabetzen da nitaz. Bai, nire amak arrazoi zuen. “Hi arakuirí-landa-rá” hutsa haiz, hau da, zuek “artista” peto-petoa deitzen duzuen. Bai, igo ezazu bolumena, gor alu horrek! Azkenik ulertu didazu. Zuk egin ezazu itxura, bai, barre egizu, ene iditxo horrek. Harriak astunak dira eta zuk arrastratzen duzuna ez da makala, ezta? Oso ondo ulertzen dizut, bai, baina ez zaitut maite, eta burdel honetan nire bizitzako hurrengo mila eta bat gauak igarota ere, ez nintzateke zutaz maiteminduko. Zu kalekume bat zara, eta ez duzu zuhaitzen hizkera ulertzen, kristalezko edalontzien murmuiloa entzutera ohitura zaude. Ito egiten zara zure zibilizazio-hondar horretan. Zuhaitzak! Non zarete?... Oihaneko hostaila, oihaneko zeru horlegia, oihaneko maitasun zarataz betea... Non zaude, ene oihan maitea? Izadiaren tekla bakoitza sakatzen dakizun hori... non zaude? Ez gara inora joaten; heriotza lehengo lekura itzultzea baino ez da. Hasiera... amaiera... Nor korritzen da lehen,

emakumea ala gizona? Bada, hasiera eta amaiera, halakoak dira. Berdin-berdinak. Korritzen lehenak eta azkenak. Garrantzigabeak eta ezinbestekoak. Gure ahotsa igaro zenean, bizitzako aro hartan, beste hiri batean edo beste oihan batean... Baina, beti leku bera. Beti, leku bera. Leku bera, beti. Barkaberak garenez, barkatu egiten gara. Eta iradokimena, eskubide bilakatzen zaigu. Zeren esperientzi berriak bizitzeko beti prest gaude-eta. Ematen du hain erraza dela. Burdel batean lan egitea, alegia. Baina, ez; ez da erraza (hala ere, ez torlojo-lantegi batean baino zailagoa). Ohitura-kontua da; badakizu, ohitzen zaren ala ez. Ohitzen bazara, galduta zaude; ohitzen ez bazara, ere bai. Onena oihanak eskaintzen dizun aukera: ezer ez. Edo, bai: izan zaitez kokrodilo bat, papagaio bat, mandril bat... Izan zaitez ezer. Izan zaitez tabakodenda bat Lisboan. Izan zaitez gauez bere ezgauzaz jabe den idazletxo, itzultzailetxo, zuzentzailetxo bat... Izan zaitez izenik gabeko mozkorti bat. Baina, batez ere, bila ezazu aitzaki on bat. Hori da garrantzitsuena. Aitzaki on bat izatea, zure burua zure buruaren aurrean zuritzeko; zure buruari, zure buruaren aurrean koipea emateko. Oi, zenbat idazle garen herri txiki honetan! Zenbat puta eta zenbat bezero gutxi! Poz gaitezen, ordea, justifikaturik nago-eta. Justifikatuta, irakurtzen nauenaren-ez-nauenaren aurrean. Olerkirik gabe bizi izan nahi duenak eman beza urrats bat aurrera. Pum! Hurrengo! Hala lortu behar da zoriona. Tiroka; txioka; oihuka; punpuilaka; gogoetaka; paladaka. Zoriona zer den jakiteko, lehenik tristura zer den

jakin beharra dago. Eta horretarako, puta izatea bezalakorik ez dago. Benetan, esperentziaz diotsuet. Puta da jainkoaren ondoren dagoen gizakirik irrealena. Ematen digun plazerra beste zerbait bilakatzen zaigu jarraian (nostalgia, gonorrea, erruduntasun-sentimendu, sifilia, itzultzeko gogo —puta hiltzeko edo puta besarkatzeko antsia—, B hepatitis. Eta abar, eta abar. Biluzten naizen bitartean, bainugelako zirrikututik begiraten dut, txoa nolakoa den igarri nahian. Herabea, gaztea, urduria dela ikusten badut, izugarri pozten naiz. Gazteak maite ditut. Bereziak dira. Gaixotasun gutxi dituzte (drogazaleak ez badira). Bai, hala da. Zerbait idatzi beharko banu, ez nuke bidaia-libururik idatziko. Nire bidaia, hementxe dago, burdel honetan, nire puta-gorputz honen barruan. Gainerako bidaiak (beren hegazki, luxuzko hotel eta autobuska aspergarriekin) zuri uzten dizkizut, nire bezero agurgarri horri. Ez haserratu. Badakizu. Bakoitzari berea. Ba al dakizu gauza bat? Jazza, jazza da nire izpiritua mugitzen duen soinu bakanetariko bat. Baina oihaneko jazzak izan behar du; ez Bronx-ekoak (ni basatia naiz, baina ez horrenbestearaino...). **39. atala.** Hona hemen irrikan itxaroten nuen bezeroa. Bezero guztiek uste dute emagalduek beraiez maitemintzeko irrikan gaudela. Ordaintzen duten bitartean... Honako hau, ordea, desberdina da. Jakako poltsikoan liburu bat dakar; eta beste poltsikoan, kasette bat. garbi dago diru gutxiko gizasemea dela. Berdin dio. Nire obulua abenturatan dabil eta hori da garrantzitsuena.

Maitemintzeko tirria daukat. Gaur gauean —izar hotzek irri egiten didaten gau honetan—, aspalditik (joan den hiletik) irrikatzen nuen bezeroa hau dela jakin dut. “Gustauko litzaiake ni lotzea?” “Zer?” besteak, bere betaurreko intelektualak hobeto jartzen. “Ez izan ergela”. “Saiatuko naun”. “Baina lotu nahi al nauk bai ala ez?” “Beno, oinetako lokarriekin ez bada...”. Batzuetan, nire obulua gorrotatzen dut. Xirula! Xirula-soinua! A, barman horrek batzuetan badirudi horren gorra ez dela... “Nik nire izate osoa ematen diat”. Mutilak erdi beldurturik erdi jostaturik begiratzen dit. Bukatutakoan, jaka janzen laguntzen diot, nire senarra izango bailitzan. Eta ateko atalasean, musu ematen diot. Oso ondo, Argitaletxe Garrantzitsu Bateko Zuzendari Idazle-Maisu hori: saia zaitez zerbait hoberik asmatzen. Makurtu burua, eta zoaz bainua hartzera. Nik ere gauza bera egingo nuke zure larruan egongo banintz. Nire larru-jotzeen truke (“nire liburuen truke”) dirua eskatzea erabaki nuenean, poztu egin zinen, ezta? Zeinen kazkarra eta kalitate gutxikoa zaren! Gisaseme guztioi bezala gertatzen zaizu zuri ere: pozoinduta zaudela; ez zarenaz bekaizti zarela. 40. atala. Okey. Jaia da. Ni zu naiz. Foot-ball. “Hooligans (ondo idatzi al dut?)”. Latak. Poteak. Metraileta-hots faltuak. Danborrada! Esaidazu zer falta zaizun. Pitoak. Txilibatoak. Loa eragozten ez duten munduko zaratarik zaratsuenak. Eta kalea. Egun batean, ihes egin izango banu, jakingo nuke nora ihes egiten! Brasiler! Putak langabezia ia-ia dauden lurraldera! Petrolioaren, urrearen lurraldera alegia.

Gobernu bakoitzak merezi duena merezi du. Baina honako hau gobernuz harantzago doa. Beharbada, badakit nor den ni hil gura duen hiltzailea: argitaletxe bateko zuzendariak bidalitako “matoia” da. Ongi da, zure “peskizan” nago. Nahi baduzu, nire ipurditzuloa irekiko dizut. Nire auzokoa bazara, hainbat eta hobe. Zeren nik beti izan ditut arazoak nire auzokoekin. Inoiz ez dut jakin ni basatiegia edota beraiek zibilizatuegiak ote ziren. Bestalde, baliteke nire auzoko auzo-elkartea izatea hiltzaile profesionala nire aurka zizatu duena, maitasuna erakusteko orduan nork bere bideak dituetan. Ordubata. Puta guztiak lanean ari dira. Baita nire auzokoak ere. Batzuk lana jaten eta beste batzuk azpila prestatzen. Kaka bera, azken finean. Denok jende zibilizatua gara-eta. Baita ni ere. Oihanaren eta nire artean hogeitabi urteko tartea dagoelako. Tira, hitz egiteko modu bat baino ez da. Literatur kritikari batzuek —gehienek— egiten dutena: koipea ematea nagusiaren aurrean; bestela, auskalo gure liburua argitaratuko diguten, argitaletxe bakarra dago-eta Euskal Herri osoan, “kalitatea” (Deustuko Euskal Filologiako kumeen ustetan) bermatzen digun argitaletxe bakarra (aspertasuna ziurtatzen digun bakarra). Zorionez, ordea, eurak han ziren, urteko milioia ordaindu eta gero zelan egin behar genituen gauzak guri esateko. Burutsuak dira, argiak, alu-potroi ahalguztidunak, tituludunak... “Pendejo” samarrak, eta barkatu... Ordubata, goizeko ordubata. Nire ama, esaterako, goizeko hamaika eta erditan hil zen. Edo...? Ahantzia gure gainetik igarotzen den

makina/basapiztia da. Heriotzaren sentrazioa bizipenen artean ezabatu egiten da. Heriotza ez da oihanean jaurkitako oihua baizik. Heriotza lau urteko ume batek zirriborratutako karikatura baino ez da. Intziri bat. Erregalatu diguten hilobia. Frustrazio-sentimendua. Harridura. Zibilizazio-islada. Noizean behin, leihoaren alderantz itzultzen dut begirada, nire hiltzailea ikusiko ote dudan... Badakit hor dagoela. Baina, nik ezin dut ezer egin nire/bere patua e-ki-di-te-ko. Badakit iparraldeko puta ez naizela, baina... intelektualok honelakoak gara. Argi samarrak... Nire barrea danborraren larruaren aurka lehertzen da kolpe bakoitzean; beterik nago; ezereza hau ez baldin bada... zer da orduan? Danborrak! Alboetarantz zeharkatzen zaidan begirada... Oso ondo, Manuel. Orain, ez daukat elektrizistaz aldatzeko astirik. Gainera, zuk, ondo egiten duzu. Anperioekin ditudan arazo guztiak konpontzen dizkidazu, niri, eta nire auzoko maitagarriei. Dantza egin! Hustu edalontzia! Ez ahaztu kopa bat zor dizudala! Axio eta Akron ez daude hilda, Astigarragako tabernetan pote bat hartzeko irrikan daude! Brasil! Beltzak! Marroiak! Zuri-beltzak! Zuri-marroiak! Marroi-beltzak! Marroi-zuriak! Japoniarrak! Japoniar-zuriak! Zuri-japoniarrak! Zuri-marroi-japoniarrak! Euskal japoniar zuri-marroiak! Eta abar. Genetikak ez du mugarik. Saia zaitez nire hironia gaintitzen, “potroidun” hori...! Asko dakizu, ezta...? Froga iezadazu. Argitara itzazu berrogei liburu zure ustez zuzena den hizkuntzaz... Kostako zaizu, ezta? Beno, bada, ezin baduzu, emaiozu su itsuen lantoki

bati. Horrela hobeto sentituko zara-eta... Ez, ez dizut gaitzik nahi, benetan. Nahastu nahi zaitut, besterik ez. Nik zutaz daukadan iritziaren izenean.

41. atala. Begira, egia aitortuko dizuet: ni, txikitandik, olerkaria izan naiz; sexu-harremanak ez ditut inoiz (onerako zein txarrerako) oso garbi izan; nire gurasoak bihotz-bihotzez maite eta gorrotatzen nituen; arpegio bai izan naiz Zaragoza hiri arruntaren erdian; begira, nik, aitortu egingo dizut, ez naiz inoiz izan; beti saiatu nintzen maitaturiko norbait izaten, eta ez nuen inoiz lortu... 42. atala. Zer nahi duzu? atea non dagoen jakin nahi duzu? Beno, bada, sar zaitez. Baina... beldurtzen bazara, ez didazu niri errua eragotziko, ezta? Okey, okey. Kolonbiarra zara. Amanda izan zenuen izena; ama-ez-dakit-zer gero. Ondo da; gauza bat naiz, Amazonas kutsatzen duen gauza bat. Rock&Rolla. Portugesez. Mundu honetan den-dena lor daiteke-eta. Nire hiltzailea hor kanpoan dago. Ez da hain gaiztoa. Berak ere ez zekien zer zela-eta hil behar ninduen. Erritmo honek burutik ateratzen nau. Erritmo honek liluratzen nau. Beste herrialde batean edo honetan. Erritmo honek ustekabeen harrapatzen nau beti. Erritmo honek. Beti. Erritmo honek... 43. atala. Emaztearen malkoak nork xukatuko ditu? Egidazu kaso piska bat! Nik maite zaitut portuko burdel honetan! zuri esker, mundua ulertzen dut; emaidazu itxaropen bat; mesedez; egidazu kontu piska bat; zu, maitasuna oro zaren hori, gogoan zu besterik ez dudan hori, izan zaitez nire bizitzako gertakaria, azkar, elkar zaitez, bil zaitez nirekin. Pentsa. Hau gure eguneroko bizitza

balitz! ai, gure oihaneko poesia norainokoa izango zen! mesedez, orain ni ulertzen hasi zaren horrek, ez nazazu laga zibilizazio hotz honen erdian, eraman nazazu zurekin oihan zarratura, nekazari borrokalarien lursailera, ez pentsa indiferentea, hotza naizenik; egun bat, ta beste bat, eta gau guztietako erritmoak eta gauak zurekin daramatzazun horrek besarka nazazu, sar ezazu zure zakil handia nire alu handiaren barruan, portuko burdel honetan, aspalditik itxaroten nuena zu zara-eta, zu zara-eta, gogoan izan ezazu, oihaneko erritmoak, horditze-uneak, maitakeriak eta grinak, zu zara-eta, nire obulua prest dagoelako, nire obulua ugaltzeko puntu-puntu dagoelako (hori da Texas-eko emakume epaile batek sekula ulertu ezin izango duena, zibilizatuegia da-eta). Kanta ezazue; hau da nire bizitza, nire ametsa: zuen kanta; zuen doinua; zuen ihauteria; zuen ahots epel, beroa. Ez, ez naiz moztera ausartzen. Eskubide hori “Indietara” lehen aldiz iritsi ziren “pribilegiatuei” uzten diet. Oraindik ere, ez nago hilda; beraz, oraindik ere bizirik nago. Eta kantatu, eta dantzatu, eta tristatu egiten naiz zure omenez, zugatik, zugatik bakarrik. Burdel batean bizi naiz aspalditik, baina badakit maitasuna zer den, puta guztien izenean esaten dizuet, gauero negar egiten duten puta gutien izenean, bihotza geziz zeharkatuta daukaten puta guztien izenean. Eta barkatu. Ni ez bainaiz oihaneko leku guztietakoa. 44. atala. Sentsualtasuna. Sexua. “Ez pentsa edozertarako prest nagoenik”. Jabeak behartuko zaitu. Hirukotearekin edo laukotearekin, berdin. Gehiago

ez dugu edan behar, orain, gaueko une honetan (saxofoiek helarazi behar digute hurrengo mezua). Bizitza halakoa da; ez dizut esango pozgarria denik, gogaikarria denik... Bakarrik, halakoa dela. Egokitzen zaizun bezala, onartu beharra dago. Buzoietan propaganda banatzea egokitu bazaizu, beno bada... hori izan daiteke zorientasuna. Badian, zorientsu bainu hartzen duten turistei begira, gu ere zorientsuak gara. Hori al da bizitzaren zentzua? Ez dakit, saxofoia jotzen duen brasildar horietariko bat besterik ez naiz. Astean, aste aspergarrian, jasatea hain nekagarria egiten zaidan astean, saxofoia jotzen dut turisten aurrean. Baina, arima alferrikatu egiten zait. Badakit beste hizkuntza bat dagoela. Baina, hizkuntza batean hiz egiteko, hizkuntza horretan ulertuko zaituztenak behar-beharrezkoak dira. Nostalgia, geroago dator... Hondartzan azken uhinak, olatuak iristen direnean... Agurrak bailitzan... Konstituzio enparantzako nire lagun galduak bailitzan... Aspaldian emandako meza baten mezu galdua... bezala... Zu zara, nire bihotzak ulertzen duen gauza bakarra... Oi, jakingo bazenute, nire bihotza zeinen samurra den... Itsuak zarete ordea. Eta zuen txakurra izateko ere baztertu egiten nauzue... European bitxikeria bat naizelako bitxikeria sentitzen naiz. Sentitzen naiz. Europa hil honetan, nire Edurnerenganako oroitzapen miresgarriaren erdi-erdiaren erdian... Europa... sentimendu itzaltsuen leherketa... non txetxeniarren herria hiltzen baita garaileen harrotasun berberaz... **45. atala.** Ordubiak. Gogoeta egiteko, ordua da...! Neu peu...! Numa... ioi soi comme une caçon que

parte l'alma d'un enamorado de ¡verdat! Seu coraçcon que non palpita sinon con una verazita qu'e non se'non alcanza! Begira, nola diozun ez du garrantzirik; garrantzitsuena da zer esan nahi duzun. Zure mezua atzeman dut. Ez dut gehiagoren beharrik. Bazter bakoitzean sortzen den eguzkiak bihotza berotzen dizu. Maiteminduta zaude. Euskal Herri hotz hau berotu duzu. Ihauterietako aurpegi bakoitza naiz. Aurpegi anitzeko usoa naiz ihauterietako hordikeriaren erdian! Beroa! beroa! Joango nintzateke, nire maitalearen bila, zeren gau honetan badakit hor kalean dabilela, bero eta hotz, turuta jotzen, hemen! hemen nago! maiteminduta nago zure aurpegiaz! maiteminduta nago zure basatasunaz! Ugal nazazu! Izan zaitez nigan oihaneke animalia, ameskeria, zera... 46. atala. Faunoak! Fauno dotoreak! 47. atala. Ez. Hau askoz harantzago doa. Aspalditik entzundako musika larria da. Badirudi zerbait gertatzera doala. Hau ez da Brasileko oihan/hiritzarretan sortutako musika. Hemen, norbait, Europa barruan, denontzako ulergarria den sentimendua sortzen ari da. Ez galdetu, ez; bularra bitan zatitzen didan oihua da, trumoi alaitsua, zezen-suzkoa. Orain, une honetan, arima hirutan zatitzen didan sentimendua orain dela 100 bat urte gizon batek alferrik jaurkitako oihu bera da. Zu, ezer entzuten ez duzun gizaseme hori, zu zara erruduna. Zu zara —eta ez besteen aberria— zeure aberriaren galeraren errua daukana. Badakit zertan ari naizen. Sentimendu hau, aspaldikoa da. Hainbat eta hainbat leinuk, zibilizaziok, herrik izandako sentimendu bera da.

Egunen batean, etxera eraman eta apalategi batean aparkatuta utzi beharko dudan sentimendu bera. Ez, ez niri eskatu ondokoari eskatuko ez zeniokeen ezer. Zoro eta hipokrita ugari ezagutu ditut-eta. Ez da nire errua; aurrera bultzatu nahi zaitut. Lortu ez badut, lortu ez baduzu, bila ezazu zugan erantzuna; ez zaitez koldarra izan; zu bezalako asko ezagutu ditut: iraultzaileen artean, puntako politikarien artean, apalen artean, oinazeak jasandakoen artean... Ez, ez ezazu erantzunik nigan bilatu. Ni ez naiz bide bat; ni nigan amaitzen den bide baten hasiera baino ez naiz. Bihotza hankaz gora jartzen dizuna naiz; erremediorik gabe, erremediorik gabe, goizeko ordubietan, zure semeak zure amaren ondoan lo egiten duen une honetan, errealitatea eta loa eta ametsa nahastu egiten diren une honetxetan, gora!, zure arimak ez du mugarik, atezainaren atean behin eta berriz sartzen den baloia da eta oihuak eta txaloak eta poz-oihuak ez dira inoiz amaitzen, ni zu naiz, ni zure baloia naiz, ni zure atea naiz, ni zure sarrera-txartela naiz, ni zure behin ikusitako partidua naiz... Kitto. Haurtzaroa jada existitzen ez den futbol-zelai batean utzitako oroitzapen galdua da. Mina nire bularrean hegan egiten duen hegaztia da. Mina nire ikastetxe ezinbestez maitatuan utzitako arrastoa da... gorroto-arrastoa... Zatoz, goimixerikordien musikaltasun gorena... Zatoz, goianalfabetasunen hunkipen urrikaltsua... Bide hau elkarrekin sentitu genuen eta elkarrekin utziko diogu sentitzeari. Politikariek hitz egin dute; olerkariok hitz egin dugu. Izan bedi denbora gutaz urrikalgarria. Zenbat ahots hilik gure inguruan!...

Zenbat kobratzen duzun, hainbat balio duzu... Ezpainak erretzen dizkidan likorea oihaneko jainkoena ez, baizik hirietako jainkoek bedeinkatutakoa da. Zu! Epaitzen didan ahots horrek, eraman nazazu zeurekin! 48. atala. Heriok bere magalean hartu ninduenean, erakutsi zizkidan munduan zenbat negar uzten nituen. Nireak... besteenak... Denak ziren bihotzik gogorrena partitzeko modukoak. Heriok bere magalean hartu ninduenean, erakutsi zizkidan munduan diren gezurrik handienak... malkorik gazienak... minik zirrargarrienak... Hau da, Heriok oroitzapen bat, amets bat, lilurakeria bat utzi zizkidan... Ezer ez. Nire hutsaltasunaren arrastoa jarri zidan begi aurean... Heriok biktima bakoitzaren aurrean negar ere egiten duela erakutsi zidan. Herio ni nintzela; hildako bakoitza ni nintzela; aintzinakotasun bakoitza, nire Herio ezinbestekoaren hildako bakoitza ni nintzela. Ezer ez. Txalo bat, publikorik gabeko eszenategi baten aurrean. Mila urtetan behin idazten jarritako nostalgiko batek ozta-ozta irudika dezakeen sentipen bakoitzaren aurrean. Negarra, hunkipena... gauza bera direnean... 49. atala. Naturak oparitu nahi izan ez zidan musika-tresna jarri zidan eskuetan, hatz artean... Pianoari ekitera doakion musikariak bere hatzei nagiak ateratzen dizkienean, holaxe neu ere bai. Ohiturarik eza, partiturarik eza ez dira goi-mailako iradokimen-une batean lortutako momentua baizik. Bihotza urratzen dizun abestia, ahotsa, gizateriaren axolarik eza urratzen duen abesti, ahots bera dira. Eztitasuna, lehendabiziko aldiz laztandutako diti-

eztitasun berbera... Gainerakoa, barbarokeria da. Munduko eztitasuna emakumeen bularretan gordeta dago. Esne-mezu horren nondik-norakoak ulertzen ez duenak ez du munduaren nondik-norakoa zertan den ulertzen. Esna pasatako gau hauek! hordi pasatako gaueko une hauek! aiduru pasatako gaueko une lelo hauek! Emakume baten ahotsak zekien sekretuaren berri... Hainbeste joan-etorri daude gure bertotik inorako harat-honat erretoriko hauetan! Ni, bere etxeko leihora agerturiko Erdi-Aroko emakume gaztea naiz; eta sentitzen dut XXII. mendeko edozein neskatok sentituko lukeena: bihotzean, zergatiaren ezjakin, irekitzen zaidan zauria, amildegia. Edozein neskatok edozein garaitan sentituko lukeena: maitasun-egarria... hain barregarri beti uzten gaituen maitasun-egarri horixe... Erdi-Aroko emagaldurik bat naiz, herri ilun eta gaur-gero ezezagun bateko portuan bere lanbide zaharrarekin jarduten duen putza zaharra, ohorik gabea (ez dakit zergatik), mortifikatua... Badirudi jainkoak bere burua emagaldurik alderatu nahi izan zuela, bere guztiahaltasuna erosoago erakutsi ahal izateko... **50. atala**. Mailua! Kolpatzen nauen mailua! Hain anker igaro zaidan denboraz forjatuta egotea dirudien mailua! Sekula ezin izango ditut ulertu burdin berberaz eginak izatea diruditen gizonak. Oste polita dira. Hain zintzoak, hain hunkigarriak, hain “hain”... Muinoak kutsatu egin dituzte euren presentziaz; zeren, izan gaitezen errealistak: handiusteak ziren; euren anbizioaren esklabuak ziren. Hala ere, beti geratzen zitzaizkien alde on bat edo beste bizirik, hurrengo belaunaldiei

helarazten zietena. Eta gaitzerdi... zeren, bestela, ez ginateke izango ezta gure itzalaren itzala ere... Zuek, gazteentzako kontzertuak antolatzen dituzuenok, jada ulertzerik ez daukazuen gauza da hori. Hobe da ulertu ezin dezakeguna misterioen kutxan gordetzea. Musikaz beteriko olatuekin jolasten denak, mundua baitauka bere eskuetan. Hori ez dut nik esaten; hori esperientziak esaten du. Abstrakzioa asmatu zuenak ez baitzuen alferrik asmatu; izan ere, ez zuen ezer alferrik asmatu. Jainkoak eta euren denborak hala nola igaro ziren, holaxe ere igaro ziren gure ametsak, gure jainkoak eta gure ideologia handiusteak. Ezin dugu ia ezer egin gure gezurren aurka. **51. atala.** Azken uneari heltzeko garaia heldu da. Lehen aipatzen nuen heroikotasuna txakurraren putza baino ez da kontzentrazio-zelaietan juduek jasandako sufrimenduen aldean. Edozein modutan ere, hau da amaiera. Eta etengabeko hasiera honi amaiera ematen diona badakit ez dela berriro nire bizitza osoan ostera ere gertatuko. Hunkitzen zaituena sarritan errepikatzea ez baita ona; noizean behin, aldatu beharra dago, bizirik sentiarazten zaituena agortu ez dadin. Halakoxea da bizitza: inoiz errepikatzen ez den asperra. Zeren heroikotasun horren azpian ezkutaturik dagoena koldarkeria besterik ez baita. Zer uste zenuten, bada? Zuek, euskaldunok, oso idealistak, oso ameslariak zarete. Ia dena galdu dutenak diren bezala. Ez du azalpenik behar; ez du azalpenik behar. **52. atala.** Ni herri urrun batetik heldu nintzen; bota egin ninduten, puta nintzelako; eta gose nintzelako. Bi

gauza horietatik batez ere bigarrenak ematen zidan lotsa. Bestea... Tira. Han, Afrikan, natura pretti ongi ulertzen dugu, hemen, Santa Europan baino. Hala ere, egia da munduko lanbiderik zaharrena aspalditxotik praktikatzen dudala. Puta-titulua existituko balitz, katedratikoa izango nintzateke. Bai, Euskal Unibertsitatean, gainera. Horretan aritzeko adina euskara badut-eta. Arren, ez bedi inor haserre nirekin, puta gaixo honekin. Neuzkan aurrezki guztiak eman nizkion Alemaniara ekarri behar ninduen zamaontziko kapitainari (baita zenbait mesede ere, zeren itsasoko gauak luzeak dira...). Heldu ginenean, esan zidan: “Alemanian gauden. Jaits ezan ontzitik eta zorte on izan”. Eta Pasaian geunden. Baina hori pare bat egun pasa arte ez nuen jakin. Kabroi alua...! Irakurri nuen, nekez, paper-puska batean idatzita neukan helbidea: “El Puerto Ostatua” jartzen zuen. Bai ostatu ederra! Tira, zertarako esan gezur. Laster, etxean bezalaxe sentitu nintzen. Eta dirutza ederra irabazten gau-gauero. 53. atala. Gaur, ordea, triste nago. Nire ama hilaren urtebetzea delako. Kasualitatez-edo, nire bezero bati ere gauza bera gertatu zaio. Hortxe aritu da, ia-ia negarrez, zenbat maite zuen eta abar. Ez diot ezer esan. Ziurraski, harritu egingo zen, emagalduek ere ama bat izan dugula jakinda. Badaezpada ere, ez diot ezer esan. Soi-soilik entzun egin diot, isilik. Eskupeko ederra emanda alde egin du. Atea itxi duenean, ez dakit zergatik, baina negar piska bat egin dut. Ez beragatik, ez gizon horren amagatik, baina nigatik, eta nire amagatik. Gero, malkoak xukatu eta barra

aldera jo dut, beste bezero baten bila. Oraindik gaztea naiz, eta oso polita. Exotikoa, endemas. Euliak kakaren inguruan nola, halaxe nire bezeroak nire gainean... Natura da; natura hutsa. Indar jarkiezina. Aurre egiten diona, bidez tronpatzen da. A, nire herriko unibertsitatean diplomatura lortu nuen. Zertan? Ba ote du horrek garrantzirik? “Diplomatura” hitzak ustez ematen duen botereak baino ez du balio. Bizitza halakoa da. Existitzeak halako puntu barregarriak ditu. Orok ez zuen bada tristura izan behar... 54. atala. Nire eguneroko honetan isurtzen ditudan hitzek nire herriaren oroitzapenak atzemateko balio didate. Emakume arrotza naizenez, nire pentsamenduen intimitatea baino ez daukat, naizenari atxikitzeko. Batzuetan, hitzen zain geratzen naiz, eta heltzen ez zaizkidala nabaritzen badut, halako izu-laborri batek hartzen nau, oroitzapenik gabe geratu izan banintz bezala. Eta orduan, oso sentsazio arraroak ditut. Esaterako, herioa naizela; edo, nire barruan, herioa dudala. Ni, herioarentzat, halako leiho bat banintz bezala. Goizeko ordubietatik aurrera, batez ere, sentsazio horiek areagotu egiten dira. Baliteke alkoholagatik izatea; hainbeste gizon hain denbora gutxian... Auskalo. Momentu horietan, ni ontzi bat naiz; treka bat. Eta nire gorputzak eta nire sentimenez berdin-berdin balio dute, lurra garbitzeko zein gizonen egarria kentzeko (zuen Jainkoaren antzera, eta barkatu). Afrikako gau gozoan dir-dir egiten duten panteraren begiak... Hori-horiak... Suteak, eta izar-lokak, eta sorgin-dantzak eta pornografiarik gabeko sexua... Zer jakingo duzue zuek zorionaz, europar

gizarajook... Mundua mundu denetik, gu, izadiaren indarrok, atera gara irabazle. Zaldi basatiak bezatu nahi zenituzten eta... astoak zuen gainera igo dira! Ai, gu sekula ez ginen saiatu ere egin zebra maitagarriak zamalkatzen. Guk ez dugu inoiz natura menperatzeko beharrik izan. Natura gure barruan beti sentitu dugulako; zuek, natura zuen baretik kanpo sentitu duzuenok zarete horren beharra sentitu duzuenak. Hainbat eta okerrago zuentzat. Jada ez dakizue ezta zer zareten ere: gizonak ala emakumeak. Pena ematen duzue. Sabanako, oihaneko, basamortuko edozein biztanle zuek baino askozaz jakintsuagoa da. **55. atala.** Une bakoitzari berea eman behar zaio. Guk, nire herrian, hala uste dugu. Beharrak bultzatutako filosofia dela esango duzue, eta baliteke hala izatea (nori axola, ordea? ohituta gaude erratzen, eta grazia egiten digu). **56. atala.** Gaurko gaua txarra da. Oso bezero gutxi. Nire aberkide batzuk izan dira gaur hemen, burdelean. Hizketa-moduagatik ezagutu ditut. Nirekin, ordea, ez dute hitz egin; lagun batzuekin. Nik entzuten nien. Eta nire barrurako desiratzen nuen: “Ez daitezela nigana etor; ez daitezela nigana etor”. Lehen, nire herrian puta nintzanean, ez zitzaidan inporta; areago, nire herriko jendea baino beste bezerorik ez nuen. Baina hemen, Pasaiako burdel honetan, kanpotarrak baino ez ditut bezerotzat nahi. Ez galdetu zergatik. Galdera bakoitzak ez du-eta erantzun bat. Afrikan ederki dakigu. Afrikan gure jiteari jarraitzen ohituta gaude. Zuek ez, ordea. Oso “arrazionalak” zarete. Oro bat ere ezkontzen zaretenean. Ongi kalkulatzan

duzue dena. Zuek horri “maitasuna” esaten diozue. Guri, ordea, gogora ekartzen digu gure aita-amek behi batzuen truke saltzen gintuztenean. Prezioa da zuengan aldatzen dena. Prezioa. 57. atala. Bragak zikin ditut. Ez zait gustatzen bragak zikin izatea. Marroi-kolore piska bat daukat. Hobe botatzea. Azken batean, bragarik gabe ere oso ondo egon naiteke puti-klub honetan. Hor dagoen bezeroari, esaterako, nire “txotxitoa” erakutsiko diot. Irri egin dit. Badator. Kopa batzuk ateraraziko dizkiot. Eta gero... hautsak harrotzera! Bizitza miresgarria da. Maite dut nire bizitza hau. Larru-jotzez beteriko nire bizitza hau. Egunero-egunero Jainkoa ikustea bezalakoa da. Barka, Jainkoa esan dut. Hitz hori zuek kutsatu didazue. “Idoloa” esan nahi nuen. Guk Afrikan idolo asko ditugu; jainkotxoak dira. Ez dira gauza guztien gainera dagoen zuen Jainko hori bezalakoak. Apalagoak baizik —gu bezain apalak—. Gauza bakarraren gainera daude-eta. Etxizeroen bitartez, gure gainera ezezik, askotan gure gainera ere jartzen dira. Asko dakite, bai batzuek bai besteek. Baina guri ez zaigu axola. Nori axola dio ezer Afrikako ilargi erraldoia zerua irensten agertzen denean? Ondo da ondo dagoena. Eta ez dagoena, ez dagoenez, ezin da ez ondo ez gaizki egon. Bai, bezero gutxiko gau honetan gehiegitxo edaten ari naiz... 58. atala. Baina gogoia dut...ez dakit... bestelako gauzetan sartzeko. Nola diozue zuek... kulturen. Bai, kulturen barrena sartzeko. Nire herrian, zure herrian bezala, kulturen gizon eta emakumeei begirune handia diegu. Alderik badago ordea; esaterako, gure herriko

kultur gizon eta emakumeek badakite zuen herriko kultur gizon eta emakumeek ez dakiten zerbait: beraiez barre egiten dugula. Maliziaz ez ordea; berez ateratzen zaigu. Ikusi al duzue noizbait harrapari handiak hausnarkari gaxoak ehizatzen, bizirik irensten? Ez? Ba, agian, horregatik izango da. Zuek ez dakizuen da gure herriko emakumeok danborra jotzen ere badakigula. Hala esaten diogu han larrua jotzeari, danborra jotzea. Horregatik, Donostiako danborrada lehen aldiz ikusi nuenean, grazia handia egin zidan. 59. atala. Egunen batean, diru piska bat aurrezten dudanean, puta izateari utzi eta diario hau idazteaz beste ezertaz ez naiz arduratuko. Gauza garbia da, sexu-gaixotasunik harrapatzeko modurik ez duena. Buru-gaixotasunei buruz, ordea, ez dakit gauza bera esan daitekeen. Antsietatea daukat gaur. Oro har, ez dut antsietaterik izaten. Baina gaur, bai. Izan daiteke nire ama hilaren urtebetetzea delako. Beti jakin zuen zertan niharduen. Hala ere, nitaz harro zegoen. Oso ongi ezagutzera iritsi zaren norbaitez harro ez egotea ezinezkoa bada ere. Pertsona bat sartu da. Berezia da. Uste dut gaua animatzera doala. Zuek deitzen duzuen “kultura”, “zibilizazioa” dakartzala uste dut. “Herio beti egon da nire aurrean” esan zidan lehen aldian. Ni piska bat beldurtu nintzen. Arrotz batengandik halako hitzak entzutea ere... Hori dena geroago gertatu zen. Bera eta bion artekoa... Berehala konturatu nintzen ez zela ohizko bezeroa. Nik ez nuen ezer ohizko bezeroen aurka, noski. Baina bera bestelakoa zen. Edaria eskatzen zuenean; putarik

politena disimuloz begiztaten zuenean; ipurdian eskua jartzen zidanean (ez, hori ez zen zakarkeria; harengan behintzat ez). Eta esaten zidan: “Zergatik behartu behar dut nire burua nahi ez dudana egitera; bizitza hain laburra izanik; bizitza hain estrainioa izanik... Zer dakigu guk gure heriotzaren orduaz? Hemen, bihotzean lurperatuta eramaten dudan sentimendu astun honekin, zer egin behar dut? Agian” esaten zidan “zuk lagunduko didazu erantzun bat bilatzen”. Orduan, Afrikako ilargia bezain handiak ziren nire begiekin begiratzen nion, isilik. Eta egiten ez banuen ere, besarkatu egiten nuen (noski, ez nuen horrelakorik egiten, burdeleko jabeari ez zitzaion gustatuko eta; beharbada, ezta hari ere). Eta isiltzen zenean, barrutik, zainetan zehar zebilkion taupa, sentipen-multzoa atzemateko gai nintzen. Gizon harengan, urrikia harria bezain gogorra zen. Ni bezain galduta zebilen. Eta horixe zen hartaz gehien gustatzen zitzaidana. Begiratzen nionean, ez nekien nori begira nengoen: bezero bati begira ala puta bati begira. Horregatik gustatzen zitzaidan horrenbeste. Espeziala zelako. Erreserbadora elkarrekin gindoazenean, edozer espero nezakeen berataz. Hil egin izan banindu ere... ni pozik. Gizon hark nire herriko emakumeok barruan daramagun sua pizten zidan. Sua edo grina. Gure harremana hobeto ez bazihoan, asaldatuta nengoelako zen. Bai, asaldatuta nengoen. Nire betiko ezaxola galduta neukan. Gizon horren itzala izateko deiak dardar batean jartzen ninduen. Begiak ixten nituenean, umeen negarrak eta barre-algarak entzutea iruditzen zitzaidan. Bera behar nuen baina

iruditzen zitzaidan berak ez zuela nire beharrik. Eta horrek bihotza urratzen zidan. Oraindik ez nekien oker nengoela; berari ere gauza bera gertatzen zitzaiola. Puta banintzen ere, nire bizitzako gau guztiak egonean emanda baneuzkan ere, oraindik ere... ez nekien... zera... Ikusten al duzue? Gizon horrek pentsamenduak hankaz gora jartzen zizkidan. Zer esaten nuen ez jakiteraino —barrutik zuria inoiz asmatzen ez zuen bala eramango balu bezala; bueltaka eta bueltaka, zainetan barrena odolak egiten duen zirkuitua errepikatuko balitz bezala—. Nire eskuei begiratzen nien. Goitik marroiak behetik zuriak. Eta ez nekien nire esku haiek zertarako ziren: gizon hura laztantzeko edo gizon haren lepoa estutzeko! Ez, ez nekien ezer. Ordura arte, gauzak beti suabe-suabe igaro ziren nire bizitzan zehar. Ezerk garrantzi handiegirik izango ez balu bezala. Kito. Barne-egoera hori suntsituta zegoen eta sekula ez nuen ostera ere berreskuratuko. “Beharbada” pentsatu ohi nuen “azkarregi maitatu nahi dut”. Orduan, eskuaz, eskuahurraz batzutan eta ukabilaz beste batzutan, alua jotzen nuen, zigortzen nuen, zauritzen nuen benetako mina sentitu arte. “Zelako puta naizen!” marmar egiten nuen. **60. atala.** Gero, axolarik ez zuela nire buruari sinestarazten saiatu nintzen. Eta ia-ia lortu nuen. **61. atala.** Ez nekien zer nahi nuen. Inoiz ez nuen jakin zer nahi nuen. Zergatik jakin beharko nuen orain bada? Pasaiako burdel batean lanean ari den Afrikako neska lotsagaldu eta maitemindu bat baino ez naiz. Ez dizut nitaz urrikitzeko eskatzen. Ez dut zure urrikian sinesten,

eta horren premiarik ere ez dut. Harroa naiz, ikusten duzunez. Txistuka deitzen badidazu, berehala joango naiz zugana. Nik jabe bat behar dut. Bestela, ez dakit bizitzen. Bizitzaren zentzua galtzen dut-eta. Baina ez ni jipoitu, arren. Hori ez. Bizitzak, berez, nahiko jipoitzen gaitu-eta. Ez du zure laguntzaren beharrik. Maite nazazu, gau batez edo lipar batez edo bi egunez edo hamar urtez. Ez, ez esan ezer. Edo den-dena bidaliko duzu pikotara. Zurea naiz. Zer gehiago nahi duzu? Hamar mila pezetaren truke, gainera! Zer gehiago nahi duzu? Guri, emagalduei, hiriko enparantza nagusietan, monumentuak altxatu beharko lizkigukete, gure omenez. Ondo merezita daukagu-eta. Hala ere, onartu behar dut ez dudala behar beste pazientziarik, itxaroteko. Itxaroteko, zer? Bada, hori... Denek itxaroten dutena. Gaur puta eta bihar epailea. Kolpeak hartzen jakin beharra. Bestela, jai daukagu. Bezero honi darion kiratsa jasaten ikasi dut. Bizimoduz aldatzea ez litzateke zaila izango. Beharbada, horixe egin beharko nuke. Antsietate hau ez da ona. Ezin zara gaueko hamarretan putetxean sartu eta gaueko hamarrak eta laurdenetan erlojuari begiratzen hasi zer ordu den bost minutuero jakiteko. Horrek gaua hilko luke; eta bezero errespetagarriak uxatuko. Putaren patua maite baduzu, gaua maitatzen ikasi behar duzu. Bestela, lanbidea gaizki aukeratu duzun seinale. **62. atala.** Behin, nire bezero baten aurka barrutik izorratzen ninduen gutzia askatu nuen. Ia-ia jipoitu ere egin nuen. Horrek lana galarazi zidan. Eta orduan, beste lanpostu baten bila hasi behar izan

nuen. Eta emakumea nintzenez, ezin nintzen marinela izan. Beraz, bukatzea erabaki nuen. Nire bitzta luzeegia izan zela erabaki nuen. Amaitu behar nuen. Amaitu behar nuen betiko. Berriro ere beste norbait/zerbait izateko. Poesia nigan ahituta zegoen. Beraz, ez zuen jarraitzea merezi. Zertarako? Europar aspergarri horietako bat izateko? Ondo-janda ondo-larrua jotako horietako bat izateko? Hori bai patua! Ez, ni ez nintzen izaki zibilizatua; ezta nahi ere. Oihaneko zuhaitza izan nahi nuen; eta ez oihaneko zuhaitza moztuko zuen aizkora. Patu hori, zuentzat. Nik badakit duintasuna bereizten. Bestela, puta izan beharrean, politikan edo bankan saiatuko nintzatekeen. Bakoitzari berea. Esan eta egin. Pasaiako uretara bota nuen burua. Kaira sokaz lotutako ontziak harrapatu eta bertan hil ninduen. Eta hementxe naukazue. Zer uste zenuten ba, ipuina amaituta zegoela? Baita zera ere! Ipuinak jarraitzen du. Baina, zergatik amaitu nahi izan dut? Horixe galdetzen nion “nire buruari” (hil eta gero bururik ba ote nuen ziur ez banekien ere). Ez nekien zehatz non nengoen. Inguruan begiratu nuen, ea nire ama hila ikusten nuen (haren urtebetetzea zen!). Baina ez nuen ezer/inor ikusi. Zapaldu ninduen ontziak kulunka jarraitzen zuen itsaso biziaren eraginez. Konturatu nintzen, ordea, edozer izateko gaitasuna nuela. Esaterako, izan ninteke ontzia lotzen zuen soka. Eta, aitortu behar dut, gustatu zitzaidala. Bai, ni, gizon guztien desirari lotuta egon zen puta hau, lokarriaren lokarria bera izango nintzen. Ondo zegoen. Zigorra ala saria? Segun-eta nola

interpretatzen duzun —bizitza honetako gauza guztiak bezalaxe, noski—. Soka bat nintzen. Eta nire amaren urtebetetzea zen. Eta ia-ia frantsesez nekien. Euria ari zuen. Gogor, gainera. Eta euri-tantak sokatik labaintzen senti nitzakeen. Nire aurreko bizitzaz garbitzen ninduten euri-tanta zoragarriak. Aspalditik itxarondako euri-tanta jostagarriak. Euri-tanta itxurapean azalduko zitzaizkidanik ez banekien ere. Baina zer dakigu mundu honetaz? Ba al dakigu ezer? Zelan jakin behar genuen, bada, egunen batean, bizi eta gero, hil eta gero, Turkiako bandera zeraman eta kaiari lotzen zuen soka, soka mixerablea izan behar genuela? Orain, gure patua lokarri baten zintzilik zegoenik ere ezin genezakeen esan. Lokarria bera ginelako. Patua bera ginelako. Gu ginen heriotzaz bestaldeko ametsa lokarri itxurapean agertzen zitzaigun unean harri eta zur uzten gintuen kulunka. Hara! Nor oroitzen zen zegoeneko Afrikaz? Eta Pasaiaz (ontzia eta lokarria “Pasaia” delako hilerri hartan egon arren? Zeren Pasaia, niretzat, hilda nengoenek, hilerria zen. Izenik gabeko lokarri baten hilerria. Inspirazioa nintzen. Momentu hartan, musikan inspiratutako konposagilea nintzen. Jada ez nintzen puta bat, puta urrikalgarri, maitagarri, errespetagarri, lotsagarri bat. Momentu hartan, bibolinen sekretuak arakatzen zekien jakintsua nintzen). Nire buruari galdetu nion: “Eta noiz arte egongo naiz hemen, zintzilik, ontziaren eta lehorraren arteko lokarria izaten? eta zertarako? Baina momentu hartan, behintzat, gauza “fisiko” bat nintzen, bederen, eta hori ez zen gutxi. Ez. Hil

eta gero, zerbait fisiko izaten jarraitzen duzula egiaztatzea ez da gutxi. Ia-ia pozik eta guzti nengoen. Agian, horregatik, “nengoelako”. 63. atala. Zein izango ote zen nire hurrengo “urratsa”? Orduan, sokatik “askatu egin nintzen”. Ez galdetu nola egin nuen. Bakarrik esango dizuet Bethoven faltan nabaritu nuela. Bai. Nik, Afrikako neska honek, Beethoven faltan nabaritu nuen. Ontzi batek turuta jo zuen eta ni azkar-azkar sartu nintzen turutaren barruan. Eta beraz, soka izateari utzi eta turuta izateari ekin nion. Ez dizuet esango poztu nintzenik, seguru ez baitakit hala gertatu zenik. Baina, tira, zergatik ez? Turuta nintzen; Pasaiako portuaren bokalea zeharkatzen zuen turuta-hotsa. Eta ikusten nuen lehorreko argiak, nire putetxearenak izandakoak barne, atzean geratzen zirela. Eta ez dizuet esango pena eman zidanik, baina hala ere pena piska bat eman zidan. Zeren mundu honetan puta izatea baino patu petralagoak badira, izan ere... Esaterako, handik belaunaldi batzuetara, itzulpen tekniko-komertzialak egiten zituen puta bihurtu nintzen. Eta ez pentsa, beraz, hura bat ere samurra izan zenik, ez horixe... Baina ez ditzagun geroko gertakariak aurreratu; gauza bakoitza, bere garaian. Gaude ontzi bateko turuta nintzela. U-u-u-u-u-u-u-u! Itsasoko mamua. U-u-u-u-u-u-u-u! Nire gainetik, antxeta bat pasatu zen. Eta bururatu zitzaidan antxeta huraxe izatea. Baina bakarrik lortu nuen antxeta harek jaulkitako putza izatea. Beraz, turuta-hotsa izatetik txori-kaka izatera pasatu nintzen. Behintzat, orain zerbait organiko nintzen. Gizakien ikuspuntutik, horrek

bazekarren berekin halako aurrerapen bat. Holako juzkuak oso subjektiboak direla onartu beharra badago ere. Tira, kontua da marinel baten kapelu gainean eroritako kaka bihurtu nintzela. Oraingoz, izaki arrotza nintzen, eta batez ere, ezezaguna (zeren kapeluaren jabea ez baitzen nire jainkozko presentziaz ohartu). “Gaur, nire ama hilaren urtebetetzea da. Eta ni hemen nago, otoitzean aritu beharrean, marinel zintzo honen ohorea dudamudatan jartzen. Ez dago eskubiderik!” oihukatu nuen. Eta orduan, nik ez dakit inspirazio-une hura nondik heldu zitzaidan, baina kontua da txori-kaka izateari utzi eta olatu-gandorra izateari heldu nintzaiola. Beno, ba. Behin, diplomatua izan nintzen. Beraz, zer dela-eta ez nuen olertiaren deia sentitzeko bezain sentikorra izan behar? Olatuaren gandorra nintzen eta gaua zen. Une batez, itsasoa partitzen zuen kaskotik hurbil jarraitu nuen. Gero, kaskoa utzi eta nire patu berriaren bila abiatu nintzen. Jadanik ez nintzen oroitzen behin Pasaiako puta izan nintzela; nire buruaz beste egin nuela; soka izan nintzela; turuta; txori-kaka; eta orain, olatu-gandorra. Hala jarraituz gero, laster funtzionari baten hatzazkazaletan geratutako zikinkeria bihurtuko nintzela *pentsatu nuen*. Zeren arraroa da, baina hala eta guztiz ere, lehen bezalaxe pentsatzeko gauza nintzen. Nire pentsamendua zen nitaz beti geratzen zen gauza bakarra. Ia-ia gauza fisikoa zen. Bustitzen ninduen eta inguratzen zitzaidan itsasoaren ahotsa bezain fisikoa, bederen. “Zein izan ote daiteke” pentsatu nuen “bere patuaren bila abiatutako olatu-gandor baten patua?”

Barre egin nuen; itsasoak ez zidan nire barrea entzuten utzi. Begiztatu nuen itzal bat ez oso urrun; hurbilago egon nintzenean, naufrago batzuk zirela ohartu nintzen. Haien txalupa makala bidali nuen itsas hondora. Naufragoen heriotzekin elkartzeko itxaron gabe, aurrea jarraitu nuen. Jakina, ordurako, olatu-gandor erraldoia nintzen. Eta laster, nire Patua itzal antzo begiztatu nuen: kontinente bat, han. “Amerika?” pentsatu nuen. Bada ez. Santa Klara irla baino ez zen. Pasaiatik nahiko hurbil nengoen, beraz. Eta halako batean, benetako amorrua sentitu nuen. “Ez!” oihu egin nuen! “Ez dut hiri horretako kaleetara itzuli nahi!” Baina indar jarkiezin batek bultzatzen ninduen. Eta laster, Kontxan sartu eta enbatak Kontxan baratutako txalupatxoak izan nintzen. Zurezkoa nintzen. Eta itsasoari begiratu nion, penaz; eta gero, itsaso zabalerantz zihoan olatuari begira geratu nintzen. Pentsatu nuen, ezen, olatu hura nire “bizitzako” aukerarik onena izan zela. Hondartza hartan, zer nintzen, bada, baratutako txalupatxo urrikalgarri bat baino? Nire izatearen nonbait min hartu nuen. “Ai!” oihukatu nuen ametsetan. Mutil-kozkor batzuk euren punteria trebatzen ari ziren nirekin. Amorratuta nengoen. Batez ere, nirekin. Zergatik ez nintzen itsaso zabalean galtzeko gai izan? Zerk bultzatu ninduen berriz hiriko kale mixerableak bilatzera? Asteburua zen. Alkohol-usaina zegoen airean, hondartza inguruko pub-etatik heltzen zitzaidana. Orduan, jauzi egin eta Artzain Onaren katedraleko orratzik altuenean suertatu nintzen. Hango tximist-orratz bilakatu nintzen. Oraindik ez

nekien zelan egiten nuen. Jiteak esaten zidan misterioa desirari lotuta zegoela. Baina gazteegia nintzen; hilberria. Eternitate osoa neukan, ikasteko. Presarik ez nuela ohartu nintzenez, lasaitu egin nintzen. Bai, asteburua zen. Tximist-orratza nintzen. Nire ama hilaren urtebetzea zen, eta baita nirea ere. Zergatik ez da azaltzen —nire ama hila, alegia— galdetu nuen nire artean. Orduan, tximist batek zartada izugarriak jo ninduen eta tutuerian zehar lurrerantz erortzen hasi nintzen abiadura osoz. Bai, oso-oso azkar. Hain azkar, non, ia-ia ez nuen ohartzeko astirik izan. “Sentsazioa” ostera ere berreskuratu nuenean, oraingoan baldosa bihurturik nengoen. Gainean txikle bat itsatsita neukan. Globo bat egiten saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Orduan ulertu nuen heriotzan, nola bizitzan ere, den-dena pazientzia-kontua dela. Eta amorrua eman zidan, hain garbi eta hain arrunta zen egiaz hain berandu konturatzeak. Nire barrurako, hitzak zenbatzen nituen. Eta baldosa soila ez nintzenez gero, silabak: bal-do-sa. Hiru. Gero, letrak: b-a-l-d-o-s-a. Zazpi. “Zazpi!” oihi egin nuen. “Euskal Herriko zazpi eskualdeak” oihi egin nuen berriro. “Ni” esan nuen nire artean “predestinatu bat naiz”. Eta orduan, bikote gazte bat nire gainetik suertatu eta neskatoaren bular gozoa bilakatu nintzen. Ez zegoen gaizki. Mutilaren eskuak nire neskato-dititxoak ferekatzen sentitzen nituen-eta. Baina lau ordu igaro ziren eta berdin-berdin jarraitzen zutenez handik alde egitea erabaki nuen. Alde batetik, ez nengoen ziur zer nahi nuen. Bat-batean, burgestxo horietariko bat sentitzen nintzen; hau da,

ez nuen aldaketarik nahi (lehen bezala jarraitu eta kito). Eta beste alde batetik, iraultzailea izateko aharrausi egitea besterik ez nuela egin behar iruditzen zitzaidan. Ez. Hori ez zen bidea. Beraz, amaitzea erabaki nuen. “Aurrerago, beste existentzia batean (beste orri batean) gehiago izaten saiatuko gara”. Eta orduan, begiak itxi eta zuei kontatzerik ez daukadan esperientzia jazo zitzaidan (zeren kontatuko banizue, zuen heriotzak —gauza segurua baita noizbait gertatuko zaizuela— ez bailuke graziaz izango). Zuen baimenarekin. Penaz. Agur. Musu bat. Besarkada handi-handi bat. “No me echéis nunca en cara que fui eso, una putilla...”. —Hoy es noche para grandes finales — entzun nion nire ahotsari ahoskatzen... Auskalo zer esan nahi nuen. Mortadelo eta Filemon.

(to be —or not to be— continued)

AMAIERA